

Durango sorkuntza bideen topalekua DA!




zientzia
bizitzeko

STEAM esperimenduak
haurrentzat
17,50€
elhuyar.eus /denda



hiztegiak
guztientzat



elhuyar
ezagutuz aldatzea
Artekale, 17

ARETO NAGUSIA HITZAREN PLAZA DA!**ABENDUAK 5,
eguna**

10:30 IKASLE GOIZA. Liburu bat egingo dut. Tailerra Euskal Editoreen Elkartearen eskutik. Saio bi. Aurretik izena eman dutenentzat.

13:30 Eskola publikoa ez da Euskal Herrian behar dugun eskola publikoa. Josu Txapartegi, Fito Rodriguez (Delta argitaletxea).

14:00 KIKARAKADA PROIEKTUA. Galder Izagirre, Gaizka Izagirre, Oraitz García.

14:30 GAZTE SORTZAILEAK PLAZARA! Manex Egaña, Iraitz Mateo, Joanes Illarregi (Ernai gazte antolakundea).

16:00 EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA 2020. Iñaki Goikoetxea, Irati Labaien, Irune de la Maza, Ane de la Presa.

16:30 TXIKIKIDS CORNER PROGRAMA. Ana Molina, Klara Atxukarro, Monica Gracia, Elisabeth Etxebeste (Mestiza elkarte artistiko-soziokulturala).

17:00 ESPAINOLA IZATEAREN EZINTASUN ZIENTIFIKOA. Urtzi Ihitza (Lemuria).

17:30 MUNDU BAT MOTXILAN. Unai Ormaetxea, Alex Txikon (Sua edizioak).

18:00 EUSKAL LANGILE ANDREA. Antzinako erregimenetik kapitalismora. Oiane Valero (Ipes).

18:30 BERDEA DA MORE BERRIA. Bizkaiko egoitzetako grebalarien testigantzak. Onintza Irureta (Argia).

19:00 ERLATIBISMOAREN EGIAK. Konstruktibismoa, egia-ostea, postmodernismoa eta beste mamu batzuk. Andoni Olariaga (UEU).

19:30 ¡NO OS IMPORTE MATAR! San Fermín 1978. Crimen de Estado. Sabino Cuadra eta Jon Jimenez (Txalaparta).

**ABENDUAK 6,
barikua**

10:30 SORMEN BEKA DA! AtopiaRPG eta 2019ko irabazleak (Gerediaga Elkarte, Durangoko Udala).

12:00 EUSKAL HERRIKO HIRIBURUEN GIDAK. Hainbat autore (Elkar).

12:30 ORAINEAN NAIZ. Yoga saioa. Maite Eizmendi.

13:00 NIK SINESTEN DIZUT. Samara Velte eta Aleka bildumako ordezkaria (Berria, Elkar, Jakin eta Txalaparta).

13:30 ZALANTZEN AMAIERA? Argien Mendetik Irudiaren Arora. Aitor Zuberogoitia, Josu Zuberogoitia (UEU).

14:00 #BOTABA Euskal Esamoldeen Erronka. Sari banaketa (Labayru Fundazioa).

14:30 Lertxundi espazioa lurra denbora. Josu Goikoetxea, Mikel Lertxundi, Maribel Aiertza, Mikel Onandia.

15:00 KOMUNITATEA HATS-BAHITURIK. Hitzunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak. Ainize Madariaga (UEU).

16:00 HIZTEGI JURIDIKOA. Jon Zarate, Ixusko Ordeñana, Xabier Alberdi (EHU).

16:30 MIKROBIOEN MUNDU LILURAGARRIA. Josu Alberdi (EHU).

17:00 KULTURA EZ DA BAT-BATEKOA. Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi, Alfredo Retortillo (EHU).

17:30 BITTOR ETA BOK. Gontzal Mendibil, Xabier Kintana, Xabier Amuriza, Antton Mari Aldekoa-Otalora (Tori produkzioak).

18:00 TARRAPATAN. Pandero baten ibilbidea. Xabier Berasaluze Leturia, Anjel Valdes (Elkar).

18:30 111 HOSTOZ ETA ORRIZ JANTZI. Jakoba Errekondo, Harkaitz Cano, Amets Arzallus, Elixabete Garmendia.

19:00 1620: NAFARROA BEHEREGAINA. Asisko Urmeneta, Angel Rekalde (Nabarralde Fundazioa).

19:30 BIGARREN SEXUA. Eskafandra taldea (Elkar).

**ABENDUAK 7,
zapatua**

10:30 UNA HISTORIA DE LA PELOTA. J. A. Azpiazu, Martin Anso (Txertoa).

11:00 DE LA HOGUERA AL LÁPIZ ROJO. LA CENSURA FRANQUISTA EN EL PAÍS VASCO. J. M. Torrealdei, Martin Anso (Txertoa).

11:30 EUSKARAREN BIDE GURUTZETIK. Kike Amonarriz (Elkar).

12:00 EGUZKILORE LIBURUAK EGITASMOA: JENTILAK ETA XIXILI. Aritza Bergara, Leire Lekuona.

12:30 GURE BIZIPOZA, GUZIONA. Bizipoza Elkarte.

13:00 PAPE NIANG. Hasiera berri bat. Mikel García, Pape Niang (Argia).

13:30 RUTAS Y RESTAURANTES CON ENCANTO DE GIPUZKOA. Josema Azpeitia, Ritxar Tolosa, Txuma Perez (Sua edizioak).

14:00 UMOREA KOLERAREN GARAIAN. Luix Martinez, Jordi Cantavella, Elsa Novelle (Brixton Records).

14:30 MARX GUZTIONTZAT!. Liburu aurkezpena. (Pamiela)

15:00 Simplicissimus Kabaret. Barrea eta Ikara. Patxo Telleria, Oier Guillan (Tartean teatroa).

15:30 MOIO. Gordetzea ezinezkoa zen. Kattalin Miner (Elkar).

16:00 EZ GARA NEUTRALAK. Gorka Bereziartua (Argia).

16:30 2020KO ILARGIAREN EGUTEGIA. Pello Zabala, Jakoba Errekondo (Argia).

17:00 BERTSOLARITZA FEMINISTOTIK (BIR)PENTSATZEN. Miren Artetxe, Ane Labaka (UEU).

17:30 EUSKADI SARIAK EUSKAL LITERATURAREN KANONETIK AT?

Irati Elorrieta, Patxi Zubizarreta, Isabel Etxeberria, Asisko Urmeneta. Moderatzailea: J. L. Zabala (Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila)

19:00 THROWING VOICES: Eskozia eta EHren arteko elkarrietzeta musikatua. Uxue Alberdi, Rachel Newton (Gerediaga Elkarte, Edinburgh IBF).

**ABENDUAK 8,
domeka**

10:30 DURANGOKO AZOKAREN ERAGIN EKONOMIKOAREN AZTERKETA (Gerediaga Elkarte eta Siadeco).

11:30 EKOLOGISTA NAIZ BAINA... NIRE EGUNEROKO KONTSUMOA INGURUMENAREN ALDEKOA AL DA? Gorka Egia Arregi.

12:00 BIZKAIKO MUSEOEN 2019KO NOBEDADEAK. Anton Erkoreka, Javier Barrio, Jon Ruigomez, Sorkunde Aiarza, Felicitas Lorenzo (Bizkaikoa).

12:30 ARGIZPIAK TXARRANTXEN ARTEAN. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko. Maria Ruiz, Oihana Etxebarrieta, Laura Vara (UEU).

13:00 KULTUR SORKUNTZEN DOKUMENTAZIOA, ETORKIZUNERAKO APUSTUA. Mahai-ingurua. Idoia Gereñu, Ion Lopez, Maria San Sebastian, Gari Otamendi, Ixiar Eizagirre Gidaria: Nere Erkiaga Laka (Xenperlar Dokumentazio Zentroa).

14:00 ESKU HARRIAK: OTEIZAREN (H)ARIA. Beñat Ralla, Txakur Gorria, Xabi Paya (MugMus laborategia).

16:30 LORALDIA FESTIBALA. Imanol Agirre, Amaia Ocerin.

17:30 BASABIZITZAREN DEIA. Nerea Azpurua, Lina Ugarte (Asociación Lectura Fácil - Euskadi Irakurketa Errea Elkarte).


18:00 NAZIO IKURRAK: EGOERA ETA ETORKIZUNA.

**Matrikula zabalik**

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

94 620 33 42 - 94 681 66 45



IRUDIENEA IKUS-ENTZUNEZKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguena

10:00 Ikasle Goiza. Soinu efektuak zinemagintzan. Tailerra Zineuskadi eta Pixelaturen eskutik. Saio bi. Aurretik izena eman dutenentzat.

16:00 'Sinadurak TV' (30'). Ikus-entzunezko proiektuaren aurkezpena (Bideografik)

17:00 'Gazteluak Zubi' (29'58'') dokumentalaren aurkezpena. Eneko Zuberogoitia, Ane Zuazubiskar eta Unai Portilla.

18:00 'Hiru uhinak' (63'). Dokumentala. Loic Legrand – Kanaldude.

19:00 'Ito' (11') fikziozko film labur kolektiboa.

20:00 'Tantaka' (10') websailaren lehen atalaren aurkezpena. Idoia Rodriguez eta Joana Parot.

ABENDUAK 6, barikua

11:00 'Zizelkariak' (75') dokumentala. Topatu.

12:30 'Kartzela' (70'). Websaila. Arnasa Gara kanpaina. EITB – Hiru Damatxo.

14:00 'Erraiak' (33') film labur dokumentala. Ekain Martinez de Lizarduy – Arteman komunikazioa.

15:00 'Harpetarrak' (90') haurrentzako zinema euskaraz. Zineuskadi.

16:30 'Anti' (19') fikziozko film laburra. Josu Martinez – Adabaki ekoizpenak eta Gastibeltza Filmak.

17:00 Kimuak film laburrak: 'Mateoren Ama' (Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga), 'Medvedek' (Ainhoa Gutiérrez del Pozo), 'Artiko' (Josu Venero eta Jesus Mari Lazkano) eta 'Lursaguak' (Izibene Oñederra) – Euskadiko Filmategia.

18:30 'DAPA' (30') Ikus-entzunezkoen saio-bildumaren aurkezpena. Yuri Agirre, Ander Mujika, Nora Alberdi, Xabier Gantzarain eta Aitor Bengoetxea.

19:00 'LOU' Dantzan jo ta ke, oinak lehertu nahian' (58') dokumental luzea. Izotz Barrio, Andrea Lopetegi eta Usua Garin.

ABENDUAK 7, zapatua

11:00 'Arantzazu, harriz herri' (25') dokumentala. Nabarralde Fundazioa.

12:00 'Nora' (2'30'') fikziozko film luzea. Filmaren lehenengo irudiak. Lara Izagirre – Gariza Films eta La fidèle Production.

12:30* 'Apaiz kartzela' (90') filmaren aurre-estreinaldia, work in progress emanaldia. Oier Aranzabal, David Pallarés eta Ritxi Lizartza – Maluta Films.

14:00 'Iurretako dantzariak' (5') dokumentalaren trailerraren aurkezpena. Bideografik - Iurretako dantza taldea eta ANBOTO

15:00 'Horman erlojua duen etxea' (104') haurrentzako zinema euskaraz. Zineuskadi.

17:00 '27zapata.eus' (20') blogeko bideoen antologia bat. Imanol Epelde.

17:45 'Pikuak' (30') fikziozko websailaren 3 atalen proiektzioa. Maddi Castro.

18:30 'Kaleko antzerkia' (8'09'') film labur dokumentala. Koldo Edorta Carranza.

19:00 'Ihesaldia' (55') fikziozko mini seriea, lehen atalaren estreinaldia. Jabi Elortegi – Pausoka eta ETB.

ABENDUAK 8, domeka

11:00 'Grufaloe' (55') haurrentzako zinema euskaraz. Zineuskadi.

12:00 'Lur eta Amets' (30'). Filmaren aurrerapen irudiak. Arteman. Joseba Ponce eta Imanol Zinkunegi. Lotura Films, Elkar, Ikastolen Elkartea eta Katxiporreta.

12:45 'Orbainak' (29'14'') film laburra – saiakera. Jorge Moneo Quintana.

13:30* 'Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa' (64') dokumentala. Bertha Gaztelumendi – Hiru Damatxo

18:00 DemaS.A. Lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia eta sari banaketa. Euskaltzaleen Topagunea.

* Abenduaren 5etik aurrera Irudienean bertan hartu ahalko dira gonbidapenak. Pertsonako 4 gonbidapen banatuko dira gehienez.



Ez dago
B planetarik

Zaindu ura,
eraiki dezagun etorkizuna.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorcioaguas.eus

Irudieneako proiektoreak 10 orduan etenik barik egongo dira lanean egunero, ikus-entzunezkoen uzta berria aurkezteko

'Pikuak' web-sailaren kontakizun kritiko eta feminista, Gladys Del Estal ekintzaile antinuklearraren memoria astinduko duen 'Ez, eskerrik asko' dokumentala, eta Imanol Epelde bideo-blogariaren '27 zapata' kanaleko bideo bilduma izango dira ikusgai, besteak beste, Zugaza zineman



Pikuak web-sailaren filmazioaren une bat Donostian (ezkerrean) eta Ez, eskerrik asko. Galdysen leihoa dokumentalaren fotograma bat (eskuman).

IKUS-ENTZUNEZKOAK • EKAITZ HERRERA

Zeluloidezko artelanek zein artefaktu digitalik berritzaileen osatuko dute Irudieneako ikus-entzunezkoen aurtengo menua. Bertan estreinatzeoak diren lanetariko batzuek, gainera, optika feminista eta kritikoak ekarriko dituzte. Horien erakusgarri dira, batetik, *Pikuak*, interneten hedatzeko pentsatuta dagoen web-saila, eta *Ez, eskerrik asko* dokumentala, zeinak Gladys Del Estal ekintzaile antinuklearraren memoria astinduko duen.

Hiru emakumeren bizipenak

Maddi Castro *Pikuak* websailaren zuzendariak aurreratu duenez, "hiru neska gazteren konplexurik gabeko elkarbizitza" kontatuko du web-sailak. "Hiru atal dituen websaila da. Donostian dago giroa, etxebizitza industrial gisako batean. Ukitu urbanoa du, musiken artean trap estiloa ageri da, eta, edukiei dagokionez, gaur egun harremanak sortzeko ditugun tresnak (mugikorrak) eta ohiko bizipenak kontatuko dira, umorez, eta

betaurreko more batzuetatik behatuta", gaineratu du Castrok.

Besteak beste, Jone Novo durangarrak parte hartu du *Pikuak* web-sailaren lanketan. Castro zuzendariak dioenez, "sekulako rola jokatu du". "Argazki zuzendaria izan da, eta muntaketan ere lan handia egin du. Profesional handiak izan dira bera eta lantaldeko beste kide guztiak; pasioz egin dugu lan", dio Castrok. *Pikuak* web-sailaren hiru atalak zapatuan estreinatuko dituzte Irudienean, 17:45ean.

Del Estalen memoria

Ez, eskerrik asko. Gladysen leihoa dokumentalak orain 40 urte izandako gertakari latz baten memoria ekarriko du gogora. 1979an, Guardia Zibilak tiroz hil zuen Gladys Del Estal ekintzaile antinuklearra, Tuteran (Nafarroa), zentral nuklearren aurkako mobilizazio batean. Sasoi hartako samina bere egin du dokumentalean Bertha Gaztelumendi zuzendariak. "Aspalditik genuen gertakari harekin dokumental bat egite-

ko asmoa. 40 urte pasatu dira, eta orain aukera izan dugu egiteko. Artxibo argazkiak eta 33 elkarrizketatutik gora ageri dira dokumentalean. Sasoi hartako mugimendu antinuklearra anitza eta zabala izan zela erakusten du. Gainera, memoria da ardatzetako bat. Estatuak biktima lez onartu behar du Del Estal". Domekan estreinatuko da dokumentala Irudienean, 13:30ean. Gerora, Donostian, Ean, Irunen eta Deban ere emango dute.

Bizkarra
jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026

Ez daukazu janaria prestatzeko astirik?
Guk lagunduko dizugu
Ettxera eroateko janaria, betikoa,
etxeokoren modukoa

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

ABADIÑO	Petite / Hezgarri / Abarkateruena
ATXONDO	Kiosko Abxondo
BERRIZ	Fonda
DURANGO	Hitz Liburudenda / Arkarazo
ELORRIO	Ilargi
GARAI	Herriko Taberna
IURRETA	Urki
IZURTZA	Herriko Taberna
MALLABIA	Bastida Taberna
MAÑARIA	Bizkarra
OTXANDIO	Danoena Taberna
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi paper-denda

2020
Durangaldeko egutegia

'Jantzari' dokumentalaren egileek aurrerapen bat proiektatuko dute Irudienean, abenduaren 7an

Iurretako Mikel Deuna dantza taldeak, Bideografik ekoiztetxeak eta ANBOTOk elkarlanean dihardute proiektuan



Unai Esturo, Jone Guenetxea eta Xabi Zabala.

IKUS-ENTZUNEZKOAK • J.D:

Dantza tradizionalan, azken urteetan aldaketa handiak gertatu dira genero ikuspututik. Iurretaren kasuan, 2018an, neska-mutilez osatutako ezpatadantzari talde parekide batek debutatu zuen Iurretako plazan lehenengoz, San Migel egunean. Ez zen emakume batek Dantzari Dantza dantzatzeko lehenengo aldia. Hala ere, tradizio handiko plaza horretan emakume bat ezpatadantzari jantzita dantzatzeko lehenengo aldia. Hala ere, tradizio handiko plaza horretan emakume bat ezpatadantzari jantzita dantzatzeko lehenengo aldia. Hari horri tiraka, tradizioaren eta generoaren inguruko dokumen-

tala grabatzen dabilta Iurretan. Iurretako Mikel Deuna dantza taldea, Bideografik ekoiztetxea eta

Urriaren prestaketa eta ospakizuna ere azaltzen dira 'Jantzari' dokumentalean

ANBOTO dira elkarlanean proiektua garatzen ari direnak. "Hasieran, dantzari zaharrenei elkarrizketak grabatzea zen asmoa. Bideografikekoekin berba egin genuen eta ikus-entzunezko txukun bat

azaldu du Unai Esturo Mikel Deuna dantza taldeko kideak. Beraz, dokumentala hiru parte-hartzaileon elkarlanaren fruitua izan da.

Urriena ardatz

Bost urterik behin Urriena antolatzen dute Iurretan. Egun honetan, Iurretako belaunaldi guztietako dantzariak batzen dira elkarregaz dantzatzeko. Aurten, lehenengoz, talde parekideak beste ezpatadantzarekin konpartitu du plaza, eta egun horren prestaketa eta ospakizuna ere azaltzen dira dokumentalean. Dantzarien emozio eta gogoetek hausnarketarako bidea zabaltzen dute. "Hainbat gai planteatzen dira, Iurretako dantzetatik haratago doazenak. Tradizioa aldatu ezin daitekeen zerbitzu da

ala etenik barik eraldatzen den zerbitzu da? Zein lotura dago kultur-sistemaren eta genero-sistemaren artean?", azaldu du Jone Guenetxea ANBOTOk zuzendariak.

35 elkarrizketa

Dokumentalerako, 35 lagun elkarrizketatu dituzte. Iurretako belaunaldi askotako dantzarietaz gain, tradizioaren inguruan gogoeta egin duten adituek ere parte hartu dute egitasmoan: Oier Arazolaza antropologoak, Aritz Ibañez Dugu-

Dantzarietaz gain, tradizioaren inguruan gogoeta egin duten adituek ere parte hartu dute

na taldeko kideak, Maggi Bullen eta Miren Guillo antropologok... Dokumentala martxoan estreinatzeko asmoa dute. "Orain, edizio fasean gaude. Elkarrizketak landu eta irudiak aztertzen gabiltza", azaldu du Carlos Iglesias Bideografikeko kideak.



San Antonio ikastetxea: Liburua eskuan eta ibili munduan!

2019-2020 ikasturtean, Durangoko San Antonio ikastetxea, "Erasmus +" programan sartu da "Opening our minds through reading" proiektuarekin. Programa europar honek, oro har, onura hauek sortzea du helburu: bai ikasle, irakasle, zein hezkuntza komunitatean; baloreak landu, lankidetzan lan egiten ikasi, metodologia berritzaileak ezagutu eta praktikan jarri, Europarako bide berriak zabaltzea, etab.

Gure ikasleek irakurtzeko gaitasuna hobetzeko duten beharra dela-eta, lan egiteko modu berritzaileen bila genbiltzan. Horrez gain, gure ikasleak etorkizunerako erronketan trebatzeko arduratzen gintuen. Ikusten genuen gero eta garrantzitsuagoa dela mundua ikusteko beste modu batzuk egon badaudela jakitea eta hauek ezagutu eta errespetatzea. Bi behar hauek kontuan hartuta Europako Key action 1 proiektua sortu genuen eta 2019ko ekainean SEPIE erakundearen onospena jaso genuen.

Proiektuko koordinatzaileak, Ione Pagonabarragak, pozik hartu zuen berria: "Ikasleek argi daukate proiektu honen bidez aukeraz betetako mundu berri bat zabaltzen zaiela".

Proiektu honi esker San Antonio ikastetxeko DBHko hiru irakasle: Itziar Duñaiturria, Ana Uncilla eta Ione Pagonabarragak, beraien gaitasun profesionala garatu eta hobetzeko aukera izango dute Porton EUNEOS formakuntza ikastaroaren bidez, eta Eslovenia eta Turkiako hainbat

ikastetxetan behaketa egonaldiak eginez. Bidaia hauei esker, irakasle parte hartzaileek esperientziak trukatu ahal izango dituzte Europako beste lankideekin, eguneroko erronkei hobeto erantzuten ikasiz eta hezkuntzaren nazioartekotze bidean jarraitzeko asmoarekin.

"Opening our minds through reading" proiektuaren izenburuak adierazten duen moduan, gure helburua, ikasleek irakurketaren bitartez mundua ikusteko modua aldatzea da. DBHko bi irakasle joango dira bertatik bertara ezagutzera nola lantzen duten irakurketa eta hiriko liburutegiarekin daukaten lankidetzak. Bertako ikasle eta irakasle asko gurean ezagunak dira, elkarrekin, bai iazko ikasturtean eta bai aurtengoan ere, irakurketarekin lotutako "eTwinning" (europar hezkuntza komunitatea) proiektuak ditugulako martxan. "Creative Reading", sormenean eta irakurketa kritikoan trebatuak dira eskola hauetan. Bertan ikasitakoa, gurea, San Antoniora ekarri, eta metodologia berritzaile eta arrakastatsua martxan ipintzea da gure helburua.

Nazioartekotze prozesua ez da hemen amaitzen. 2020-2021 ikasturtean gure beharretara egokituak "eTwinning" proiektuekin jarraitzeaz gain, ikasleak ere gurekin eraman nahi ditugu, elkartruke programa baten barruan. Munduko erronkei zabalik dagoen ikasle solidario, europar eta euskalduna eraikitzen laguntzeko: bere nortasuna mantendu eta besteena errespetatu eta baloratzeko gai dena.

“Bizitzako lehenengo hamarkada ei da irakurzaletasuna garatzeko sasoirik garrantzitsuenena, pedagogoez diotenez”

Xabier Olaso otxandiarak nobedade bi aurkeztuko ditu Durango Azokan: 'Iker ikerlaria eta fantasia liburua' eta 'Shan eta Shen edo bidean ikasia'; haurrentzako eta gazteentzako literatura bildumarako ale bi gehiago izango dira

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Xabier Olaso otxandiarra haur eta gazte literaturako idazlerik garrantzitsuenetakoa da. 2013an, Olaso haur eta gazte literaturako Euskadi Saria jaso zuen 'Tximeletrak' lanagatik. Ordutik, etenik barik plazaratu ditu lanak. 54. Durango Azokan liburu bi aurkeztuko ditu.

'Iker ikerlaria eta fantasia liburua' liburuak aurkeztu duzu. Zeri buruzkoa da? Zelan moldatu zara Estibaliz Jaione ilustratzaileagaz beharrezan?
Iker ikerlaria eta Iker ikerlariaren iratzargailua aurreko liburuetan lez, hirugarren honetan ere irakurleak beste abentura miresgarri bat biziko du Iker ikerlaria pertsonaiaren eskutik. Baina, oraingoan, liburuei loturiko abentura izango da. Honetan, irakurle fin-fina da Iker ikerlaria, eta irakurtzen ari den liburuak bidaiatzera eramango du, baina ezohiko bidaiak izango da berea.

“

Ilustrazioek berebiziko garrantzia hartzen dute istorioan, aurrekoetan lez”

Ibaizabal argitaletxeko Txirrista bildumako liburuetan ohi denez, ilustrazioek berebiziko garrantzia hartzen dute istorioan, eta aurrekoetan lez, Estibaliz Jaionek eginikoak dira. Ederto ibili gara biok. Lan polita egin duela uste dut, ondo baino hobeto bereganatu ditu kontakizuneko pasarterik garrantzitsuenak eta errealismoz beteriko marrazki landuz eta egokiz hornitu.



Xabier Olaso Bengoa

Idazlea
Otxandio | 1964

Eta 'Shan eta Shen edo bidean ikasia', zeri buruzkoa da?

Eleberri laburra da eta Ibaizabalen Ekin bilduman argitaratu da. Tibeteko monasterio budista batean bizi den lama edo maisu espiritualak da Shan. Eta gau ilunean monasterio horretara heldu den hamabi urteko mutiko umezurtza da Shen. Hainbat egunetan, zedro tantai baten abaroen elkartuko dira Shan eta Shen, maisua eta dizipulua. Elkarregaz egingo dituzten bideak izango dira ikasbide. Eguna joan eta eguna etorri, urte askoan

bereganaturiko jakitura Shan mutikoari transmitituko dio. Aholku emango dio batzuetan. Alegiak

“

Shan eta Shen maisua eta dizipulua dira, eta elkarregaz bizitakoak ikasbide dituzte”

—

edo ipuinak bitarteko direla, bizitzari loturiko irakaspenak jaki-

naraziko dizkio beste batzuetan. Mutikoak, begiak zoli, belarriak erne eta bihotza zabal jasoko ditu irakasle maisuaren irakaspen horiek guztiak.

Umorea eta fantasia erabili ohi dituzu istorioak lantzeko.

Haurrek literaturan interesa daukatela ikusten duzu? Interes hau galdu egiten da denboragaz? Zer egin daiteke haur irakurleak heldu irakurle bihurtzeko?

Bizitzako lehenengo hamarkada ei da irakurzaletasuna garatzeko sasoirik garrantzitsuenena,

pedagogoez diotenez. Irakurketagaz gozatzen ikasten da, eta, beraz, irakatsi egin daitekeela uste dut. Eskolak ere badu honekiko ardurarik, baina familia ere funtsezkoagoa da bide horretan, eta gurasoei dagokie motibatzea, eredu izatea eta liburuetarako jakin-mina suspertzea. Badira egin daitezkeen gauza batzuk, denon eskura daudenak: ez behartu haur edo beste hori irakurtzera, liburuak eskura ipini, liburu-dendak bisitatu, liburutegiko bazkide izan, gauero ipuin bat irakurri txikiei, liburuak ez debekatu, liburuak konpartitu...

“

Aspaldion, haur literaturako hainbat liburu euskaratzen eta moldatzen ibili naiz”

Helduentzako poesia, haurrentzako poesia, ipuinak... hainbat generotan ibili zara. Zeinetan sentitzen zara ondoen? Zer dauka genero bakoitzak?

Guztiak ditut gustuko, sasoiaren sasoikoa. Orain urte batzuk poesia egon nintzen lotuago, eta aspaldion narrazioari, baina poesiatik larregi urrutiratu barik. Poesia idaztea, adibidez, erronka handia da, berba gutxigaz komunikatu behar baituzu, gauzak iradoki edo berbaz irudiak sortu. Narratibak beste era batean lotzen zaitu, beste egokiera bat eskatzen du. Baina genero guztiek erakartzen naute. **Zer ari zara idazten momentu honetan? Baduzu proiekturik esku artean?** Aspaldion, haur literaturako hainbat liburu euskaratzen eta moldatzen ibili naiz, gauza soilak beti ere. Bestalde, helduei zuzenduta aspaldian idatzitako kontakizun lan bati ekin diot berriro, gehiago lantzeko asmotan. Haurrentzako ipuin laburren bildumatxo bat ere banabil osatzen apurka. Astiro idazten dut, egunerokoak ez dit eta tarte luzerik uzten, baina idazkuntzari lotuta jarraitu behar dut, gozamen handia baita niretzat.

Azaroaren 28tik aurrera

Alcampo Durango berria

Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepidea.



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

“Erabakitze eskubidea aldarrikatu eta koherenteki materializatzeko prest agertzen den komunitatea da eskubide horren subjektu”

EHUtik filosofian doktorea den Andoni Olariaga berriztarak 'Erlatibismoaren egiak. Konstruktibismoa, egia-ostea, postmodernismoa eta beste mamu batzuk' izeneko liburua kaleratu du eta Durango

LIBURUA • JOSEBA DERTEANO

Zer da erlatibismoa?

Erlatibismoa auzi filosofiko bat da lehenik eta behin: gauza guztiak erlazioan neurtzen direlako posizioa. Hau da, balio, interpretazio, sentimendu, ekintza... batek bere baitan ez duela balio edo neurrik beste zerbaitegaz neurtzen ez bada, eta hor, gainera, hizkuntzak jokatzeko duela mediazio edo posibilitatzaile lana munduaren eta gure artean. Aurrekoak problema filosofiko eta praktikoa dakar: erlatibismoa absolutu guztiak erlatiboak direlako posizioa bada, guztia da eztaba-dagarria. Horrek ziurtasun gosez bizi den gizakiari ziurgabetasun mingarriak ekartzen dizkio. Bestalde, zerbait erlatiboa delako ustea askotan balio gutxiagoa izateagaz nahasten da, edo asmakizun hutsa izateagaz. Ez da horrela: esan gura du munduarekiko dugun ikuspegi politiko, etiko eta abar erabaki eta uste erlatibo askoren erlauntza baten gainean eraikita daudela.

Zergatik heldu diozu gai honi?

Unibertsitatean filosofia ikastera sartu nintzenean, banuen intuizio bat gure eztabaida moral, politiko eta filosofiko guztien atzean erlatibismoaren auzia zegoela. Urteak aurrera joan ahala, intuizio horrek indarra hartu du. Zein da auzi hori? Demagun, maila etiko eta politikoan, giza eskubideak lortzeko askotan biolentzia erabili beharra dagoela defendatzen dudala, eta beste batek, oster, edozein kasu eta testuingurutan biolentzia txarto dagoela. Zer gertatzen da? Oinarritzko desadostasun horretan ez dagoela irizpide ziurrik horri gizaki eta gizarte lez erantzuteko; Hau da, erantzuna eraiki egin behar dela, eta hor faktore asko sartzen



Andoni Olariaga Azkarate
'Erlatibismoaren egiak'
liburua idatzi du
Berriz | 1984

dira jokoan. Hau esateak errazkeria dirudi, baina gizarte moduan aurrekoak suposatzen duen erronka etiko eta politikoari aurre egitea zaila da, azkenean, jokoan egoten direlako askoren proiektu bital eta politiko kontrajarriak. Auzi horien atzean posizio absoluturik ez dagoela onartzeak gure elkarbizitza oinarritzen duten oinarri moral, politiko eta abar erlatiboak direla onartzea esan gura du. Gizakiak oraindik ez du ikasi halako lurzoru labainkorren gainean elkar-bizitzeko, eta gurago izaten du lurzoru finko bat eraiki eta absolutua eztaba daezina balitz lez defendatu,

horretarako erlauntza linguistiko, historiko, legal, kultural eta etiko bat propioki sortuz. Erlatibismoa beti agertzen da erlauntza horien arrakalak bilatzen eta handitzen, ordura arteko mundua ikusteko era hori posible ez den bakarria dela aldarrikatzen duelako; begiratu orain Espainiaren batasunaren auziari, esaterako.

Erlatibismoa gaur egungo panorama edo errealtate sozialean aplikatuta, zer ondorio ateratu daiteke?

Hego Euskal Herrian bizi garen estatuaren oinarri dogmatikoa aurrekoagaz lotuta dago. Gure gaitetik dagoen legalitatea, espainiar

konstituzioa, dogma baten gainean oinarritua dago, espainiar batasun santua. Zergatik? Hargatik; kontsentsu sozialean oinarritua balego, eta hori oso erlatiboa da, ziur aski ez lukeelako askorik iraungo. Hor-taz, Espainiak ez du onartzen hor inongo erlatibotasunik, eta, beraz, bere elkarbizitzaren oinarria dogma zirkular batean oinarritzen du. Horrela, Espainiar estatuaren oinarria ez da laiko, erlijiosoa baino. Eztabaida guztiak oinarri dogmatiko bat duen legalitatean konprimitzen ditu; besteok gure proiektuen erlatibotasuna aldarrikatzen dugun bitartean.

Erabakitze eskubidea, eskubide hori nork duen... Gure Eskutik makina bat bider esan dute gai horri buruzko ikuspegi berria egosten dabilela Europan. Horrela ikusten duzu?

Oso adibide aproposa da. Aurreko paradigmaren autodeterminazio eskubideak legalki zedarritzen zuen nazio batek eskubide hori izateko baldintzak, kolonia bat izatea, zapaldua izatea. Egun, erabakitzeko eskubidearen teoria are erradikalagoa da, aurrekoaz gainera ia baldintza demokratikoago bakarria ipintzen duelako mahai gainean: komunitate batek aske izateko nahia demokratikoki era kohesionatua agertzea. Beraz, bai, pragmatikoagoa, erlatiboagoa da egungo ikuspegia. Nork du eskubi-

Zerbait erlatiboa delako ustea askotan balio gutxiagoa izateagaz nahasten da, eta ez da horrela”

dea? Zergatik Euskal Herriak, eta ez Arabak edo Barakaldok? Eztabaida tranpatia da: eskubide hori aldarrikatu eta koherenteki materializatzeko prest agertzen den komunitatea da eskubide horren subjektu, eta hala behar du. Aurreko horrek ondorio sinplea dakar: Euskal Herriak eskubidea aldarrikatu baino gehiago (hori ere bai), eskubidea materializatzeko baldintza sozial, politiko eta instituzionalak eraiki behar ditu.

Gaur egun puri-purian dago erlatibismoa, baina honen ondoren zer?

Krisiak ziklikoak dira. Krisietatik ateratzen dena uneko aktore politiko eta sozialen indar korrelazioen arabera ordena moral eta kultural berri naturalizatu bat izaten da. Horrek ez du zertan negatiboa izan, absolutu horiek oinarri erlatiboaren gainean eraikita daudela onartuko bagenu. Erlatibismoaren bertute bat baita kritikotasuna zabaltzen duela. Horixe izan da nire lanaren helburu bat: erakustea orain arte arrazionaltasunaren mugak ulertu diren modu hertsia baino zabala-goak direla.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998
www.manaria.org

Sustapen honen barruko planen arrisku-maila
maila txikiaren eta oso handiaren artekoa da.

ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide
sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.

“Ongi bizi eta B plana beti prest izan”

(Etorkizunari aurrez aurre
begiratu, aurrezkiei etekina
atera eta ongi bizi beti)

kutxabank

Kutxabank SA, kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo, JFk: A95653077, Bizkaiko Merkataritza
Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0. Liburua, BI-58729 Orria, 1. Folioa, 1. Inskripzioa.



KABI@ DIGITALAREN PLAZA DA!**ABENDUAK 5,
eguna**

11:00 IKASLE GOIZA. MOON: konputagailu baten funtzionamendua ulertzeko mahai jolasa. Tailerra. Saio bi. Aurretik izena eman dutenentzat.

16:00 ZUT aldizkari digital multimedia eta IXA websaila. Aurkezpena. Gaizka Izagirre eta Josu Bilbao

16:30 HIRIKILABS: hiri laborategia, teknologia eta ezagutza elkarregaz lantzen. Hitzaldiak, erakusketak, aurkezpenak... Manex Izagirre eta Ibai Zabaleta.
»» EH Aerospace proiektua
»» Food Hack lab lantalde irekia
»» Hezkuntza Material Irekiak lantaldea
»» Jolabs "Do it in family" proiektuak

**ABENDUAK 6,
barikua****GAMER EGUNA**

11:00 Aurkezpenak eta erakustaldiak
»» SuperStarFighter
»» Keep Talking And Nobody Explodes
»» Mindustry
»» VR betaurrekoen simulazio erakustaldia

16:30 JOLASERAKO TARTEA.

Euskarazko bideojokoak probatzeko aukera. Nerabe eta nagusientzat.

11:00 Gure ondarea Wikidata eta Txikipediaren zurrumbillean

»» Ondarea eta idazleak wikidatatzen, zer eta nola?
Mertxe Zabala.
»» 12:00 Txikipediaren oinarriak eta erabilera. Neguko eskola lehiaketaren aurkezpena. Mikel Arroia eta Koldo Biguri.
»» 13:00 Ondarea, Wikimedia eta teknologia Mahai-ingurua.

16:30 AtopiaRPG Rolcast. Zuzeneko rol partida eta podcast grabazioa.

**ABENDUAK 8,
domeka****11:00** BuruTek: burujabetza teknologikoa Euskal Herrian.

»» 11:00 Zer da burujabetza teknologikoa?
»» 11:20 Google eskolak kolonizatzen.
»» 12:20 Hezkuntza ere librezale. Aurkezpena.
»» 12:30 BuruTek: etorriko diren erronken inguruko bilkura irekia.

16:30 Diseinu grafikoaren glosarioa.

Aurkezpena. Nerea Ansa Bañuelos, Itziar Garzia, Jon Ander Garzia eta Ohiana Calparsoro. Antolatzailea: Alaiondo estudioa eta Usandizaga diseinua.

17:00 Egunean behin, mugikorrerako jokoaren arrakasta.

Aurkezpena eta topaketa. Codesyntax.

18:00 Mauriziak ez du inor hil.

Kontzertua. Ines Osinaga eta Lorea Argarate.

Laguntzaileak:

Game Erauntsia, Euskal Wikilarien Kultura Elkartea, BuruTek, Eskolan ere Librezale eta Hirikilabs.




disfruta
BIZKAIA





Turismoa Bizkaian,
guztia zure eskuetan!



 Gastronomia
  Ostatuak
  Aisia

www.disfrutabizkaia.com

Aurkitu non jan, zer egin eta non egin lo Bizkaian



Asociación
de Hostelería
Bizkaia
Ostalaritzako
Elkartea

Bizkaiko Ostalaritza
Elkartearen web turistikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MIRRERAKUNTZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Babesarekin

'Egunean Behin' aplikazioaren nondik norakoak ezagutu eta simulazio praktiko batean parte hartzeko aukera egongo da Kabian

Abenduaren 8an izango da, 17:00etan. Ondoren, Ines Osinaga eta Lorea Argarateren 'Mauriziak ez du inor hil' kontzertu bereziak emango dio itxiera Kabiako egitarauari

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskara sustatu eta euskal kultura ezagutaraztea asmoa duen *Egunean Behin* izeneko jolasa modan dago. Eibarko Codesyntax taldeak kaleratu zuen, martxoan, eta aplikazioak milaka deskarga izan ditu harrezkero; baita milaka erabiltzaile ere egunerok. "Egia esan, ez genuen itxaroten horrenbeste jendeak jokatzera eta horren azkar zabaltzea. Aplikazioa atera genuenean, milaka gutxi batzuetako helburua ipini genion geure buruari, baina ez genuen aurreikusi horrenbeste lagunek parte hartuko zutela", adierazi du Josu Azpillaga Codesyntax taldeko kideak. Momentu honetan, 44 bat mila erabiltzaile aktibo ditu aplikazioak.

Egunean Behin tribial estiloko galdera-erantzunen jokoa da. Erabiltzaileek hamar galderako galde-tegi bati erantzun behar diote, ahalik eta denborarik laburrenean. Izenak berak dioen lez, egunean behin baino ezin da jokatu.

Codesyntax taldekoek jakitera eman dutenez, dagoeneko amaitzeaz dago bigarren txanda edo denboraldia. Irailean hasi zuten bigarren denboraldi hori eta gabonetan emango diote amaiera. "Gabonak arte iraungo dugu, baina, gero, atsedenditxo bat hartuko dugu. Gabonak egun bereziak izaten dira eta data horiekin lotutako galderak ipiniko ditugu, familian erantzuteko", esan du Azpillagak.

Hala ere, Codesyntax taldeko kideek hirugarren denboraldi bati ekingo diote, urtarrilean. "Ez dakigu seguru zein egunetan, baina urtarrilean hirugarren denboraldia hasiko dugu", gaineratu du. Iraigarri dutenez, urte berriagaz hasiko den hirugarren denboraldia berrikuntzekin hasiko da. "Beste motibazio batzuk lortzen ahaleginduko gara", esan du Azpillagak.

Domekan, 17:00etan, Codesyntaxeko lagunek horren guztiaren berri emango dute Kabian. Ordu-bete inguruko saioa izango da; lehen ordu erdian, aplikazioaren

ikuspegi teknikoa azalduko dute, atzean duen lana, besteak beste. Bigarren zatian, simulazio praktiko bat egingo dute. Bertaratzen direnek partida bera jokatu dute.

Kontzertua Kabian

Egunean Behin aplikazioaren aurkezpenaz gainera, Kabiako arduradunek beste hainbat ekimen antolatutuzte azokako egunetarako, tartean kontzertu bat. Aurten, kultura digitalaren plaza bitxikeria bategaz

Irailean hasi zuten bigarren denboraldia, eta gabonetan emango diote amaiera

itxiko dute, Ines Osinaga eta Lorea Argarate musikarien *Mauriziak ez du inor hil* kontzertu bereziagaz. Kontzertuan euskal instrumentuei espazio bat eskainiko diete eta plaza-andreei gorazarre egingo diete.



Momentu honetan, 44 bat mila erabiltzaile aktibo ditu aplikazioak.



54. DURANGOKO AZOKA

Abenduaren 5etik 8ra

DA!

Bilbao - Durango
Durango - Bilbao

Arratsaldeaz:
30 min. maiztasuna

TREN ZERBITZU BEREZIAK /
TREN ZERBITZU BEREZIAK

www.euskotren.eus/tren

euskotren trena

Bittor Kapanaga idazle otxandiarra oroitzuz, Gontzal Mendibilek 'Bittor eta biok' liburua eta 'Biok' diskoa kaleratu ditu

Liburuak Kapanagagaz izandako esperientziak kontatzen ditu. Bestalde, diskoak idazleari entzundako filosofia azaleratzen du

OTXANDIO • IGOR GALARZA

Gontzal Mendibil musikari zeanuriztarrek *Bittor eta biok* liburua eta *Biok* diskoa argitara atera zituen eguaztenean. Lan bien ardatz nagusia Bittor Kapanaga otxandiarra da. Izan ere, euskaltzale eta euskal idazle izan zena Mendibilen "lagun, maisu eta profeta" izan zen, Zeanuriko musikariaren berbetan. Durangoko Azokan eskuragai egongo dira lan biak, eta, horrez gainera, berbaldi bat ere eskainiko du abenduaren 6an, Xabier Kintana, Xabier Amuriza eta Antton Mari Aldekoa-Otaloragaz batera.

Medibilek bigarren literatur lana du *Bittor eta biok*. Aurreko liburuan ere, *Gorbeiaiko haizea*, Kapanaga agertzen zen. Zeanuriztarren

Bittor Kapanaga eta Gontzal Mendibil dozenaka urtean izan ziren lagun-minak

berbetan, "euskal idazle handia izateaz gainera, Kapanaga filosofo bat zen, maisu bat". Kapanaga 2011ko uztailaren 15ean zendu zen. Zeruko Argia, Jakin eta Anaitasuna aldizkarietako kolaboratzailea izan zen. Gontzal Mendibilek gaztetatik ezagutzen zuen, eta ANBOTOGaz izan duen elkarrizketan, gaztea zenetik hartu-eman estua izan zutela nabarmendu du: "Oso pertsona interesgarria zen, idatzi baino gauzak esan egiten zituen, eta gazteekin erraz izaten zuen hartu-emana". Irakaspen asko jaso zituela esan du Mendibilek, baina, guztien artean, "gauzak sakontzeko" saiakera azpimarratu du. "Gaur egun bizitza ziztu bizian doa, eta globalizazioaren sasoian arinkerian jaustea oso

erraza da", Mendibilek esan duenez. Kapanagaren "izaera heterodoxoa, dogmetan sartu bakoa" miresten zuela dio.

Bestalde, liburuaren hitzaurrea Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak idatzi du. Durangoko Jesuitetan ikasitakoak dira Sarrionandia eta Mendibil, eta giro erdaldunean ezagutu zuten elkar, abeslariak adierazi duenez. Iurretako idazleak Kapanaga "druida" lez izendatzen zuela dio Mendibilek.

Hamazazpigarren diskoa

Liburua ez ezik, Zeanuriko abeslariak disko bat ere kaleratu du. Diskoan ere Bittor Kapanaga presente dagoela adierazi du: "Hainbat bider sartu dut 'ama' terminoa; izan ere, eta Bittorregaz guztiz ados nengoen honetan, euskaldunon hizkuntza eta antzinatasuna matriarkala da". Azoka heldu aurretik, kantaldi ugari izan ditu, tartean Otxandion, azaroaren 29an. Lan berri hau plazaratzeko desiratzen


Bittor Kapanaga (ezkerrean) eta Gontzal Mendibil (eskuinean) sarri geratzen ziren elkarrengaz.

dagoela esan du Mendibilek. Esan du ez dela aurreko sortutako ideia bat, diskoa eta liburua "Bittor hil

Mendibil: "Durangoko Azoka urtero joan da aldatzen, egokitzen, eta beti onerako"

zen egunetik buruan bueltan" izan dituela baino. Beraz, abeslaria Du-

rangoko Azokan egongo da beste urte batez ere. Txikitatik etorri izan da Durangora Mendibil, eta Azokak izan dituen aldaketak bizi izan ditu. "Urtero joan da aldatzen, garaietara egokitzen, eta beti onerako egin ditu aldaketak". Hala ere, gaur egungo artistak digitalizazioagaz "galdu samar" daudela azaldu du. "Lehen pila bat saltzen zen, eta orain zaila da denontzat", esan du. Areto Nagusian arituko da, barikuan, 17:30etik 18:00etara.



**zatoz gu
ezagutzera**

jh
Jesuitak
Durango



94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org



www.informazaitzez.eus

ARGITALPENAK / NOBEDADEAK

LUR AZPIAN
Desobiratzeak Nafarroan
(1939-2019)

BAJO TIERRA
Exhumaciones en Navarra
(1939-2019)
(edizio elebiduna)

10 €



Nafarroako eskolaren
HISTORIA ILUSTRATUA
(euskaraz)

HISTORIA ILUSTRADA
de la escuela en Navarra
(gaztelaniaz)

Guillermo Iriarte Aranaz

25 €

EGILE NAFARREN EUSKAL
LITERATURAREN ANTOLOGIA

3. liburukia. 1975etik 2000ra arte

2. liburukia. 1900etik 1975era arte

1. liburukia. Erdi arotik errenazimentura eta
erromantizismoa

Asier Barandiaran Amarika (koordinatzailea)

12 € / liburukia



BERTIZKO JAURERRIA
(euskaraz)

EL SEÑORÍO DE BERTIZ
(gaztelaniaz)

Andoni Esparza Leibar

10 €

FONTES LINGVAE VASCONUM

(seihilerokoa aldizkaria)

Euskal hizkuntzalaritzako aldizkaria,
komunitate zientifikoari zuzendua eta
1969az geroztik argitaratua

10 € / zenbakia



ADINA-4 IKERKETA AGENTZIA
zientifiko eta teknologikoa

(euskaraz)

3. liburukia. Medikuntza pertsonalizatua
eta munduko futbol txapelketa

2. liburukia. Etorkizuneko Ibilgailua
hemen dago

1. liburukia. Sabotajea haize-parkean

2,90 € / liburukia

KARLISMOA
ZINEMAREN IKUSPUNTUTIK

EL CARLISMO
DESDE EL CINE

(edizio elebiduna)

Erakusketako katalogoa
Karlismoaren Museoa

15 €



MULTIPRISMA

Karlismoari begiradak gaur egun
Miradas actuales al Carlismo
(1808-1977)

(edizio elebiduna)

Erakusketako katalogoa
Karlismoaren Museoa

10 €

Argitalpen denda
Navas de Tolosa, 21-behea
31002 Iruña
Tel. 948 229070

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

publicaciones.navarra.es

“16-17 urte nituela sartu zen Leonard Cohenen musika nire etxean, eta ordutik ez du irten”

Mikel Urdangarinek 'Hotza da NY is cold' zuzeneko diskoa kaleratu du; Leonard Cohen musikariaren kantuek ditu oinarri



Mikel Urdangarin
Abasolo
Musikaria eta
kantugilea
Zornotza | 1971

MUSIKA • EKAITZ HERRERA

Leonard Cohen zenaren kantuek oinarri hartuta, Mikel Urdangarin musikari zornotzarrak 'Hotza da NY is cold' zuzeneko diskoa argitaratu du. Zart kolektiboagaz argitaratutako lana da, eta haren erakusmahaiaren egongo da eskuragarri.

Zergatik erabaki duzu Leonard Cohenen kantuek oinarri dituen zuzeneko disko bat argitaratzea?

Nire abeslaririk kutunenetariko bat delako. Hau guztia *Izar and star* zikloan hasi zen. Kutuna nuen abeslariren baten bertsioak egin eta kontzertua emateko gonbidatu ninduten ziklo hartara, 2016an. Donostian eta Bilbon eman nituen kontzertuak, eta Bilbokoa grabatu egin genuen. Hori da, funtsean, diskoa.

Zure konposizio propioetan ere eragin al du Leonard Cohenek?

Esango nuke gustuko dugun guztiak eragiten digula. Gogoan dut 16-17 urte nituenean aitak Cohe-

nen binilo bat oparitu zidala. Disko hark nerabezaro mugitu horretan harrapatu ninduen. Etxera sartu zen, nigan sartu zen, eta harrezkeror ez du irten. Binilo horren guztia hartu eta xurgatu nuen.

Eragin al dizu beldurrik edo presiorik beste artista baten kantuen bertsioak egiteak?

Sentitu nuen presioa, bai kantuen aukeraketa egiterakoan, eta baita grabaketa egiterakoan ere. 2016ko urrian grabatu genuen zuzeneko hura, eta, gerora, diskoa alde batera geratu zen, umezurtz. Gerora etorri dira *Margolaria* proiektua eta abar. Cohenen diskoetxearen baimenak ere behar ziren hau egiteko, eta horrela egon da denbora luzez, gorde ta moduan, orain atera dugun arte.

Zer moduz geratu zara diskoaren emaitzagaz?

Karta bakarragaz jokatu genuen zuzeneko grabaketa, eta ondo irten zen. Musika diskotik aberatsa da. Iruditzen zait gau inspiratua izan genuela. Musikariak oso fin dabil-tza. Gerora, grabaketaren ondoren, Alison Keable kantariaren ahotsa sartu dugu.

Aurrerantzean, zuzenean gozatuko dugu 'Hotza da NY is cold' lan berriaz?

Ez dut kontzerturik aurreikusita. Omenaldi moduko bat izan zen, eta horretan geratuko da. Aurrera begira, beste ideia batzuk ditut buruan.

Obrak martxan!
Azken 3 ETXEBIZITZAK SALGAI!
Bigarren fasea hastear, deitu eta apuntatu!



- TERRAZA HANDIAK
- ESPAZIO ZABALAK
- INTERNETERAKO DOAKO KONEXIOA
- HORMA ARMAIRUAK
- ENERGIA ERAGINKORTASUN HANDIKO ETXEBIZITZAK

ERTZAINZAREN BIRIBILGUNEAN, KURUTZIAGA ONDOAN
94 681 44 95 / 650 397 007



GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikaslea ardatz
Euskara eta Euskal kultura
Eleaniztasuna
Genero berdintasuna
Aniztasuna
Natura



BISITA GIDATUAK NOIZNAHI

Tel. 946200822

idazkaritza@kurutziagaikastola.eus

www.kurutziagaikastola.eus

- 0-18 urte bitarteko eskaintza
- Kirol eta aisialdi eskaintza zabala
- Jantokia: bertokoa, sasoikoa eta produktu ekologikoak

"Marrazkiak egiterakoan umearengan pentsatu dut, ez irakurlearengan"

Alberdaniak kaleratutako 'Lo Potolo. Lotara joateko ipuinak' liburua irudiz jantzi du Eider Eibar ilustratzaile zornotzarrak



Eider Eibar
Zugazabeitia
Ilustratzailea
Zornotza | 1980

LITERATURA • AITZIBER BASAURI

'Lo Potolo. Lotarako Ipuinak' liburuak Uxue Alberdi, Leire Bilbao, Arkaitz Cano, Juan Kruz Igerabide, Anjel Lertxundi, Miren Agur Meabe, Mitxel Murua eta Patxi Zubizarretaren testuak batzen ditu. Domekan aurkeztuko dute, Saguganbaran.

Zelako prozesua izan da hainbeste egileren lanak irudiekin jantzea?

Oso testu bisualak dira guztiak, eta, beraz, ez da lan zaila izan. Hainbeste irudiren artean, testua irudikatuko zuen irudia aukeratzea izan da zaila. Arreta berezia ipini dut testuen artean oso antzeko irudirik egon ez zedin, ipuin edo olerki batetik

bestera apurketa egiteko. Era berean, grafikoki osotasun bat lortzen ahalegindu naiz, liburuari oreka bat emateko, trazoekin, marrazkien itxuragaz, kolore gamagaz.... Testuak irakurri aurretik, aurrelanketa bat egin nuen, eta, gero, bakoitzarentzako irudia landu.

Batez ere, koloreekin jolas egin duzu.

Haurrentzako materiala oso kolore argiekin erlazionatzen dugu beti, kolore biziekin. Baina, oraingoan, guztiz kontrakoa egin dut. Lotara joateko ipuin bilduma izanik, iluntasuna eta gaua irudikatu gura izan ditut azalean, eta barruko orrietan ere ideia horri eusteko, koloreekin jolas egin dut. Kolore beroak erabili

ditut, formak biguntzen dituztela eta goxotasuna ematen dutelako. Irudi leunak eta bigunak erabili ditut. Nire saltsan sentitzen naiz hor. Marrazkiak egiterako orduan, umearengan pentsatu dut, ez hainbeste irakurlearengan. Helduek irakurri arren, marrazkiak umeekin konpartitzea itxaroten dut.

Zenbait egile eta formatu batzen ditu liburuak. Eragiten du horrek ilustratzailearen lanean?

Bai, horixe da proiektu honen alderik interesgarriena eta zailena. Hainbat egilek liburu berean lan egitea eta denentzat marrazkiak egiteko aukera ematea zoragarria da. Baina erronka ere bai. Bakoitzak

bere izaera duelako. Patxi Zubizarretagaz izan ezik, beste denekin lan egin izan dut aurretik, eta alde dut hori. Batzuekin behin baino gehiagotan, gainera. Ez da berdina ipuin klasiko bat, olerki bat edo hitz joko bat. Espazialki kokapen bat du bakoitzak, eta horregaz jolastu naiz. Liburu berezia da, anitza delako eta oso gauza desberdinak batzen dituelako. Horregatik da erakargarria. Egileei gauza desberdinak eskatu zaizkie eta hori polita da, lanerako zein irakurtzeko.

Zelako esperientzia izan da?

Oso dibertigarria. Opari bat izan da, eta oso ondo pasatu dut. Ipuinak oso politak dira, magikoak, eta barre

asko egin dut. Iluntasun horren bila nindoala jakinda, oso modu naturalen irten da dena. Benetako istorioak, istorio irrealak eta fantasia piloa batzen ditu liburuak, eta gaua, iluntasuna, izarrak... oso presente daude ipuin askotan.

Geroago eta onarpen handiagoa du irudiak?

Argitaletxeak konturatzen hasi dira irakurle asko marrazkiarengatik doazela materialaren bila, idazleari duen pisua kendu barik. Gura barik, bagabiltza geure begiak hezten. Ilustrazioak indarra hartu du azken urteetan, presentzia handitu du. Testuaren lagungarri izatetik osagarria izatera pasatu da irudia. Geroago eta gehiagotan, ilustrazioak testuak berak baino presentzia handiagoa

Ilustrazioak indarra hartu du azken urteetan. Testuaren lagungarri izatetik osagarri izatera pasatu da irudia

du, eta liburu azaletan ere geroago eta gehiagotan agertzen da marrazkilararen izena.

Beste proiektu bat ere baduzu esku artean. Haurrentzako euskarazko 'Koko-Joko' bideojokoan lanean ari zara, Harrobi ikastola bidelagun duzuela.

Hala da. Oso istorio pertsonala da eta erronka handia. Asko ari naiz ikasten. Io da pertsonaia nagusia, marraztea gustatzen zaion haurra. Kokoen laguna. Halako batean, kokaok koadernora sartuko dira, marrazki irudimentsuetara sartuko dira, eta io atzetik joango da. Kokoen bilaketa horretan hainbat pantaila pasatuko ditugu. Marrazketagaz eta sormenagaz oso lotuta dagoen bideojokoa da. Tarte batean ondo pasatzea da helburua, eta gurata edo gura barik euskara kontsumitzea. Egia bihurtu den ametsa da niretzat, eta datorren urte hasieran gura dugu erabilgarri egotea, kokoak.eus webgunean. Abenduaren 5ean aurkeztuko dugu proiektua, Saguganbaran. Iskander Sagarminaga da arlo informatikoaren arduraduna.



Arriluzea 2 baxua (Tabirako auzoa)
Durango - 946 811 384

katerin
Ardoak

inaki
uribe

Eguneko menuak
Asteburuetako menu bereziak
Delikatessena
Ardoteka



kurutziaqa 40 48200 durango t/f 946 200 427

saltsan.com

50 urte
gure kultura
errotzen,
gure hizkuntzari
arnasa ematen



Hemengoa
izatea ona da



EROSKI

50 URTE zurekin

Aurtengo Euskal Dendak aurpegi berri asko izango ditu eta 52 erakusmahaitik 13 nobedadeak izango dira

Abenduaren 5etik 8ra, Durango merkatu plaza Euskal Herriko artisautza ekoizpenaren erdigune bihurtuko da Euskal Dendaren 24. aldiagaz



lazko aldiak inoiz baino bisitari gehiago izan zituen; azokako lau egunetan 33.681 lagun igaro ziren Euskal Dendatik.

EUSKAL DENDA • JOSEBA DERTEANO
Aurreko urteetako ildoari jarraituz, Euskal Dendak Euskal Herriko lurralde guztietako ordezkariak batuko ditu abenduaren 5etik 8ra merkatu plazan. Baina aurtentorriko diren artisautzariko askok lehenengoz bisitatuko dute Durango. Hain zuzen ere, artisauen %25 aurretik sekula egon bakoak izango dira: 52 erakusmahaitik 13. "Euskal Herrian artisautza sektorea pizturaldi batean dago, gazte asko dabilta euren ilusioa artisautzan ipinita", adierazi zuen Endika Zabala Euskal Dendako zuzendariak

aurkezpen egunean. Horregatik, mugimendu horri guztiari tokia egin diote aurtengo Euskal Dendan.

Erakustaldiak eta tailerrak egingo dituzte, antzinako ogibideak ezagutara emateko

Eskualdeko sei artisau

Urtero legez, eskualdeko artisauak ere izango dute tokia Euskal Den-

dan. Hain zuzen ere, Durangaldeko sei artisau gonbidatu dituzte, denak aurretik ere egondakoak. Honako hauek dira: paperezko bitxiak egiten dituen Anitha Mol elorriarra, zeramikaria eta grabatzailea den Rosa Etxabe, Restaurarte zaharberritze tailerra, bitxiak egiten dituen Eneko Unzalu, egurra lantzen duen Felix Larrañaga berriztarra eta Eloorrioko Gorakat.

Euskal Dendaren leloa *Larruzko Lilia* izango da. Zabalak azaldu zenez, "artisauak euren lanbidearekiko duten sentikortasuna eta grina" islatu gura izan dute lelo horregaz.

Lau egunean zabalik

Euskal Denda abenduaren 5ean inauguratuko dute, 12:00etan, eta lau egunean egongo da zabalik. Goizetan 11:00etatik 14:30era bisitatu ahalko da, eta arratsaldetan 16:30etik 21:00etara (domekan 20:00ak arte).

Denbora horretan, zuzeneko erakustaldiak eta tailerrak antolatuko dituzte, antzinako ogibideak ezagutara emateko. Horregaz batera, Euskal Dendak dirauen bitartean zozketak egingo dituzte eta hainbat sopesa izango dira, antolatzaileek aurreratu dutenez.



Endika Zabala (Lekeitio, 1988)

"Gazteek eremu berrietara hedatzen dute artisautza"

Orain arte Euskal Dendaren zuzendari izan den Bernat Vidalen erreleboa hartu du Endika Zabalak aurtent. Euskal Denda antolatzen duen Arbaso elkartearen Bizkaiko arduraduna da eta artisautza negozio bat du Lekeitio, egurra lantzen duena.

Aurtent Euskal denda beste ikuspuntu batetik bizitzea egokituko zaizu. Zelan hartu duzu erantzukizun hori?

Gure negozioagaz oso lanpetuta gabilta eta Euskal Denda gida-tzea erantzukizun handia da, baina gustura egingo dut, euskal artisautzaren hitzordurik nagusia delako.

Hainbat artisau gazte gonbidatu dituzte. Geroago eta gazte artisau gehiago dago?

Bestelako azoketara goazenean, artisau gazte asko ikusten ditugu. Betiko artisauak bai, baina gazte berriak ere bai. Ideia bat izan eta ideia horregaz aurrera egitera ausartu diren gazteak dira. Gazteek duten ezaugarri bat da digitalizazioaren sasoian hezitakoak direla eta artisautza garatu eta eremu berrietara hedatzen dutela. Hori artisautzarako onuragarria da eta babestu beharra dago.

EUSKAL 24 DENDA®

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!

Erakustaldiak, umeentzako tailerrak, zozketak eta sorpresa asko



Durango Azoka Plazan

2019 Abenduak
5 - 8

www.euskaldenda.info

facebook.com/arbasa

“Moda kontuan hartzen dut, baina ez diot jarraitzen; neure gustuen arabera sortzen ditut poltsak”

Gorane Gillen artisau elorriarrak aurreko aldietan baino poltsa eta motxila berezi gehiago eramango ditu aurten Durangoko Euskal Dendara



Gorane Gillen Basauri
Gorakat artisau dendako kidea
Elorrio | 1985

ARTISAUTZA • JOSEBA DERTEANO

Gorane Gillenek kolore eta gustu guztietako poltsak eta motxilak egiten ditu Elorrioko Gorakat dendan. Euskal Dendan egongo dira salgai, abenduaren 5etik aurrera.

Aspaldi murgildu zinen artisauen munduan?

Orain lau bat urte. Betidanik gustatu izan zait jostea, txikitatik. Bere sasoian, Arte Ederrak ikastea erabaki nuen, moda diseinuak ez ninduen-eta guztiz betetzen. Baina jostea beti gustatu izan zaidanez, urteetan arlo horretan trebatzen joan naiz. Kasualitatez sartu nintzen mundu honetan. Lagun batzuen artisau denda batean nen-

goela, tapizeria oihalki batzuk zituzten poltsa batean, eta jaso egin nituen. Beste lagun batek azoka bat antolatu zuenean, oihalki horiek hartu eta poltsa batzuk egin nituen. Eta sorpresa handia hartu nuen, ia poltsa guztiak saldu nituen eta. "Beharbada hauxe izan daiteke nire bidea", pentsatu nuen. Gordeta nituen oihalkiak, bakoitza gama batekoa zen eta ideia horregaz jarraitzea erabaki nuen. Bakarrak eta eskusiboak ziren poltsak sortzea. Jendeak baloratu egiten du hori.

Arte Ederrak ikasi izanak lagundu dizu zure ogibidean?

Bai. Arte Ederretan proiektuekin lan egiten ikasten da. Ideia batetik azpi ideiak irteten dira eta ikuspegi

orokor hori irudikatzen lagundu dit. Pertsona sortzailea izan naiz betidanik.

“**Bakarrak eta eskusiboak ziren poltsak sortzea erabaki nuen; jendeak baloratu egiten du hori**”

Sormenak hartzen du atsedenik?

Jende askok galdetzen dit: nondik hartzen dituzu ideiak? Edozein tokitatik: kaletik, iragarki batetik,

naturatik... Asko fijatzen naiz orokorrean, eta baita poltsetan ere. Jendeak egindako iradokizunak ere kontuan hartzen ditut.

'Argi' izeneko filmean jantzi-diseinuan laguntzailea izan zinen. Zelako esperientzia izan zen?

Oso ona. Beste mundu eta jende bat ezagutzeko aukera eskaini zidan, baina ikusi nuen ez zela niretzat egindako ogibidea. Gorakaten neuk erabakitzen dut neure ordutegia, zer egin, zelan egin... Baina esperientzia aberasgarria izan zen. Diseinatzerako orduan, modari kasu egiten diozu?

Ez. Moda kontuan hartzen dut, baina ez diot jarraitzen. Neure gustuen arabera sortzen dut.

Poltsa pertsonalizatuak ere egiten dituzu?

Nik egingo ez nituzkeen kolore konbinazioak eskatzen badizkidate, ba, egiten ditut. Gomendioak ematen dizkiet, kolore hau beste honegaz hobeto geratzen dela eta antzerakoak, baina euren gustuak asetzen ahalegintzen naiz.

Lan eta lan zabilza Euskal Dendara begira?

Bai. Urterik urtera ikusi dut salmentak onak izaten direla. Beraz, produktuen ekoizpena handitu egiten dut sasoi honetan. Aurten denbora gehiago hartu dut poltsak orandino mimo gehiagogaz presatzeko. Modelo bakoitzetik pieza bakar berezi gehiago egongo dira.



MARKIEGI

ELEKTRIZITATEA ETA ARGIZTAPENA

Tabira 3, 48200 Durango

e-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com
946 203 520

AHOTSENEA SORTZAILEEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguna
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 Ikasle Goiza: Enkarguz. Tailer parte-hartzailea. Andoni Egaña, Xabier Zabala eta Alberto de Abajoren eskutik. Aurretik izena eman dutenentzat.
15:00 MOCKERS. 'Oreka ahulak'.
15:40 LA BASU. 'Gerra'.
16:20 OREKA TX. 'Zabulutaka'.
17:00 IÑORKIÑAK. 'Iñorkiñak'.
17:40 XABI BANDINI. 'BIBA'.
18:20 XATIRO. 'Xatiro'.
19:00 WILLIS DRUMMOND. 'Zugzwang'.
19:40 SHARON STONER. 'Erraietatik'.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
11:30 YOLANDA ARRIETA. 'Ataria' (Denonartean).
12:00 ASEL LUZARRAGA. 'Inoren Munduan' (Elkar).
12:30 IÑIGO ASTIZ ETA MAITE MUTUBERRIA. 'Joemak eta Polasak' (Elkar).
13:00 GARBIÑE UBEDA. 'Mehatxua' (Elkar).
13:30 HAINBAT AUTORE. '8 emakumezko' (Balea Zuria).
14:00 FELIPE JUARISTI. 'Erbesteko elurra' (Erein).
14:30 PELLO OTXOTEKO. 'Itsas bizimina' (Balea Zuria).
16:30 DON INORREZ. 'Dardara hura'.
17:00 MIKEL MARKEZ. 'Biribilean'.

17:30 ALAIA MARTIN ETA AMETS BADIOLA. Leihoen afasia (Eztena-Arte eszenikoen jaialdia).
18:00 HEGATS 57 (Euskal Idazleen Elkarte).
18:30 KARMELE MITXELENA. 'Erakusleihoan' (Erein).
19:00 MIREN AGUR MEABE. 'Hezurren erretura' (Susa).
19:30 JOSE LUIS OTAMENDI. 'Disoluzio argiak' (Susa).
ABENDUAK 6, barikua
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 BELATZ. 'Hotz egin duen arren'.
11:40 ZEA MAYS. 'Atera'.
12:20 ZAZKEL. 'Estatu Kolpea' (Ezpata Dantza).
13:00 MANEZ ETA KOBREAK. 'Manez B'.
13:40 MAD MUASEL. 'Vualah'.
14:20 SUA. 'Ordu beltzak'.
15:00 RODEO. EP.
15:40 AGURTZANE ETA ION ELUSTONDO. 'Bizirik dauden eskuak'.
16:20 AFRIKA BIBANG. 'Sua'.
17:00 UNIDAD ALAVESA. 'San Denetio'.
17:40 EHko TRIKITIXA ELKARTEA. 'Haziak II'.
18:20 SUTAN. 'AB'.
19:00 KASKEZUR. 'Ihesi doaz animaliak'.
19:40 MURGI. 'Sargia'.
AHOTSENEA SOLASALDIAK

10:30 PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES. 'Oroimenaren xaflakortasuna' (Erein).
11:00 FERMIN BALENTZIA. 'Kantuari emana'. Hainbat autore (Txalaparta).
11:30 BERNARDO ATXAGA. 'Etxeak eta hilobiak' (Pamiela).
12:00 KARMELE JAIO. 'Aitaren etxea' (Elkar).
12:30 HARKAITZ CANO ETA ADUR LARREA. 'Antzara Eguna' (Txalaparta).
13:00 BERRI TXARRAK, HARKAITZ CANO, IBAI ARRIETA ETA EIDER ITURRIAGA. 'Berba eta irudia' (Only in dreams).
13:30 TXEMA GARCIA VILANA. 'Pentaedroa' (Elkar).
14:00 ANTON ARANBURU. 'Kaos#Kosmos'.
14:30 MIREN BILLELABEITIA, MUNGIA BHIKO IKASLEAK, RAMON SAIZARBITORIA. 'Aitita-amamen guda zibila'.
16:00 AINTZANE USANDIZAGA. 'Kabitu ezina' (Elkar).
16:30 IÑAKI HOLGADO ETA HARKAITZ CANO. 'Amets Alokatuak' (Ikastolen Elkarte).
17:00 TXAKUR GORRIA. 'Errealitateak'.
17:30 KOLDO IZAGIRRE. 'Bertsoaren harria' (Lanku).
18:00 EDU ZELAIETA ETA ENEKO UGARTE. 'Mundutik mundua' (Pamiela).
18:30 UNAI ELORRIAGA. 'Iturria' (Susa).
19:00 JOSEBA SARRIONANDIA. 'Airea ez da debalde' (Pamiela). Liburua Joxemari Iturralde aurkeztuko du.
19:30 SILVIA FEDERICI. 'Mundua berriz liluratuz'. Liburua Katakarak argitaletxeko ordezkari batek aurkeztuko du.

ABENDUAK 7, zapatua
AHOTSENEA ZUZENEKOAK
11:00 HABI. 'Loratu'.
11:40 ARIMA. 'Metamorphosis'.
12:20 DUPLA. 'Folklore'.
13:00 ABEREH. 'Laino eta belatz artean'.
13:40 KEU AGIRRETXEA. 'Ura eta bakea'.
14:20 NABIL. 'Eter'.
15:00 IKER LAUROBA. 'Negua'.
15:40 SERGE. 'Enarak itzuli dira'.
16:20 SKAKEITAN. 'Ezpainetan odola'.
17:00 SAIA GOAIT. 'Saia Goait'.
17:40 HIBAI. 'Trip Tics III-IV'.
18:20 PHYSIS VS NOMOS. 'Arraro nioenean'.
19:00 RO. Tenk! eta Ekhitzaltze.
19:40 LEOK'K. 'Alferrik baita'.
AHOTSENEA SOLASALDIAK
10:30 HAINBAT AUTORE. 'Xangre fanzine literarioa'.
11:00 FITO RODRIGUEZ. 'Fake News' (Ultrisque Vasconiae).
11:30 MARIA ORCASITAS VICANDI, ANDREA PERALES FERNANDEZ DE GAMBOA ETA ANGELA GARCIA MARDONES. 'Errebelde 50 bider' (Erein).
12:00 MIREN AMURIZA. 'Basa' (Elkar).
12:30 ENERITZ ARTETXE. 'Karanbola hirukoitza' (EHAZE).
13:00 RUBEN SANCHEZ. 'Hondarrak' (Txalaparta).

San Nikolas Eguna

IX. IZURTZAKO

IX. GaztARDOgi


FERIXA

ABENDUAK 6

Barikua, 11:00-15:00

AHOTSENEA SORTZAILEEN PLAZA DA!

13:30 ANJEL LERTXUNDI. 'Itzuliz usu begiak' (Alberdania).	19:00 RYSZARD KAPUSCINSKI. 'Kristo fusilarekin'. Amaia Apalauza itzultzaileak aurkeztuta (Katakarak).	15:40 FITS. 'Zaurgarriari'.	13:30 PELLO ZABALA. 'Natura labur mintzo' (Alberdania).
14:00 JAKOBA ERREKONDO ETA ANTON OLARIAGA. 'Landareak lantzen 2020'. (Argia).	19:30 BARBARA EHRENREICH & DEIRDRE ENGLISH. 'Sorginak, emaginak eta erizainak'. Liburua Katakarak argitaletxeko ordezkari batek aurkeztuko du.	16:20 ANTON LARRANDABURU ETA BITXILOREAK. 'Ibilbide terapeutikoa'.	14:00 LOREA AGIRRE ETA IDURRE ESKISABEL. 'Trikua esnatu da' (Susa).
14:30 DONOSTI ERESKI GREGORIAN SCHOLA. 'Azken mendeetako gregoriano gipuzkoarra'.	ABENDUAK 8, domeka AHOTSENEA ZUZENEOAK	17:00 HIRI GALDUAK. 'Ertzak'.	16:00 JOXEMARI ITURRALDE. 'Jamaikako neska' (Pamiela).
16:00 BEÑAT SARASOLA. 'Deklaratzekorik ez' (Susa).	11:00 AIZKORAK ZORROZTU. 'Ezpata dantza'.	17:40 DIENTES DE LUNA. 'Atmosfera'.	16:30 CASTILLO SUAREZ. 'Irautera'.
16:30 AMETS ARZALLUS ETA IBRAHIMA BALDE. 'Miñan' (Susa).	11:40 GORRIBALTZ. 'Zuen gainean'.	18:20 NEBRASHKA. 'Lawak'.	17:00 MIXU. 'Sustraiak'.
17:00 YURRE UGARTE ETA JOSEBA LARRATXE. 'Joana Maiz' (Harriet).	12:20 ASSATA. 'Dantzatu, madarikatuok!'	19:00 HIL NORBAIT. 'Euskal Metal Fantasia'.	17:30 MAIATZ 68 ETA 69 ALDIZKARIAK.
17:30 KIRMEN URIBE. '17 segundo' (Susa).	13:00 EZTANDA. 'Errua norena da?'	AHOTSENEA SOLASALDIAK	18:00 NANNI BALESTRINI. 'Den-dena nahi dugu'. Fernando Rey itzultzaileak aurkeztuta (Katakarak).
18:00 ARITZ TRUEBA, MARTIN ETXEBERRIA ETA XABIER ETXEBERRIA. 'Buyan'.	13:40 REVOLTA PERMANENT. 'Lobotomiak'.	10:30 BALOREAK.	18:30 UXUE ALBERDI. 'Kontrako eztarritik' (Susa).
18:30 EVA ILLOUZ. 'Arimaren etorkizuna'. Danele Sarriugarte itzultzaileak aurkeztuta (Katakarak).	14:20 IBIL BEDI. 'Berandu, baina garaiz'.	11:00 JON IÑAKI LASA. 'Pertsonaiak' (Pamiela).	
	15:00 HIGA. 'Higa'.	11:30 MARI LUZ ESTEBAN. 'Andre zaharraren manifestua' (Pamiela).	
		12:00 RAFA EGIGUREN. 'Txipiroiak bere beltzean' (Susa).	
		12:30 ARITZ GORROTXATEGI. 'Amua' (Elkar).	
		13:00 IONE GOROSTARZU. 'Ez da erditzea' (Elkar).	



Ahotsenea euskal sortzaileen topagunea izango da beste urte batez; aurten ere gune bitan zatituko da plaza berezia

Abenduaren 5etik 8ra bitartean, Euskal Herriko 111 talde, bakarlari eta idazle batuko dira sormenaren erakusleiko bizia den Ahotsenean



Hesian taldea Ahotsenean, iaz.

AHOTSENEA • ARITZ MALDONADO

Lau egun, 49 disko-aurkezpen eta 62 solasaldi. Horiek datu hotzak. Karparen berotasunean, baina, 111 bakarlari, talde eta idazlek publikoagaz bat egingo dute sortzaileen plazan. Aurreko urteetan lez, ibilbide luzeko musikari eta idazleek hasiberriekin partekatuko dute euren taula. Hain zuzen ere, horixe da Ahotseneako ezau-

garri nagusietariko bat: espazio berean estilo, jatorri eta ibilbide desberdineko sortzaileak batzea.

Musikari dagokionez, estilo anitzeko nobedadeak aurkeztuko dira bertan: rock doinuak izango dira nagusi, ohikoa den legez; hala ere, hip hop, trikitixa, heavy, indie eta trap doinuak ere egongo dira gozagai. "Musikari dagokionez, euren kantak autoe-

Rock doinuak nagusitu arren, doinu anitzak egongo dira: hip hop, trikitixa, heavy eta indie

koizpenaren bitartez kaleratu dituzten musikariak izango di-

rela nagusi azpimarratu behar dugu", nabarmendu zuen Unai Pelayo Ahotseneako arduradunak aurkezpenean. Besteak beste, Zea Mays, Oreka Tx, Willis Drummond eta Keu Agirretxea artista ezagunak egongo dira. Horiez gainera, euren lehenengo diskoa kaleratu duten musikariak ere egongo dira: Iñorkiñak, Saia Goait eta Sua taldeak, adibidez.

Komikigintzaren gorakada

Literatura solasaldien kasuan, komikigintzan eman den jauzia nabarmendu du Pelayok. Hainbat komiki obra aurkeztuko dituzte; besteak beste, Adur Larrearen eta Harkaitz Canoren *Antzara Eguna* (hilak 6, 12:00etan), eta Yurre Ugarteren eta Joseba Larratxeren *Joana Maiz* (abenduak 7, 17:00etan). Berri Txarrak taldearen agurraren harira kaleratu den *Berba eta Irudia* liburua ere aurkeztuko

Karmele Jaiok, Kirmen Uribek, Anjel Lertxundik eta beste sortzaile ezagun batzuek ere parte hartuko dute

dute, barikuan, 13:00etan. Horrez gainera, Karmele Jaiok, Kirmen Uribek, Anjel Lertxundik eta beste sortzaile ezagun batzuek ere parte hartuko dute.

Plaza bizia

Orain dela hamabi urte sortu zenetik, Ahotseneak aparteko bizitasuna eman dio Durango Azokari. Hango eta hemengo sortzaileez gainera, Durangaldeko artistak ere igoko dira Landakoko oholtzara. Horrela, Miren Amurizak *Basa* liburua aurkeztuko du, zapatuan, 12:00etan. Bestalde, Joxemari Iturralkdek Joseba Sarrionandiaren azken liburua, *Airea ez da debalde*, aurkeztuko du barikuan, 19:00etan. Eta Mocker's taldeak *Oreka ahula* aurkeztuko du, gaur, 15:00etan. Ahotsenearen aurtengo edizioa Nebrashka talde durangarraren emanaldiak itxiko du, domekan. 18:20ean hasiko dira jotzen.

bed's

Zure atsedeneari pentsatzeko sasoia da
Bisita gaitzazu!

Zure premiari erantzuteko prest izango gara:
bed's koltxo - denda
Alluitz 1, Durango
T. 944 005 980

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

Mendraka
Bizkaiko Txakolina

Elizalde Baserria
Mendraka auzoa, 1 ELORRIO
Tel.: 94 682 00 00

Anboto
TABERNA JATETXEA

Goienkale kalea, 14
Durango - Tel.: 946 811 020

Bulegorako ziguiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Abenduaren 6an, Joseba Jaka euskaltzale eta korrikalaria oroituko duen herri lasterketa egingo dute Durangon

Nagusien lasterketa 11:30ean hasiko da, Ezkurdin, eta korrikariek Durangoko kaleetatik igaroko den sei kilometroko ibilbidea osatu beharko dute



Joseba Jakaren oroimenezko XVII. herri lasterketa jokatu da barikuan.

LASTERKETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangon egingo den Joseba Jaka herri lasterketak adin askotariko korrikalariak batuko ditu, hama-zazpigarrenez. Abenduaren 6an izango da euskaltzale eta kirolzale zarauztarraren oroimenezko XVII. herri lasterketa. Nagusien lasterketa 11:30ean hasiko da. Sei kilometro izango ditu eta hiru sailkapen egongo dira: 2001etik 2004ra bitartean jaiotakoak, seniorrak eta beteranoak (40 urtetik gorakoak). Antolatzaileek jakitera

Korrikariek izen-ematea aurretik zein lasterketa egunean bertan egin dezakete

eman dutenez, izen-ematea aurretik egiteko aukera egongo da, baita egunean bertan ere. Aurretik egin gura dutenek kirolprobak.com webgunean egin beharko dute. Bestalde, egunean bertan, 10:00etatik

11:15era bitartean egin ahal izango da, Ezkurdin.

Gazteen lasterketa

Aurretik umeek parte hartuko dute. Lehenengoak 2010ean edo aurretik jaiotakoak izango dira, 11:00etan; 2008tik 2009ra bitartean jaiotakoak, 11:10ean. Lasterketa bi hauetan parte hartzen duten umeek 500 metro egingo dituzte. Ondoren, infantilen txanda izango da. 2005tik 2007ra bitartean jaiotakoak 11:20an irtengo dira. 800 me-

Nagusien probaren aurretik umeena izango da; lehenengoak 11:00etan irtengo dira

troko lasterketa egingo dute. Proba hasi baino ordu erdi lehenago egin beharko dute izen-ematea.

Umeen lasterketako izen-emateari dagokionez, parte-hartzaileak proba hasi baino ordu erdi

lehenago apuntatu beharko dira, irteera lekuan bertan.

Korrikalariarentzat informazioa

Lasterketan parte hartzen duten korrikariek arropak uzteko eta duxatzeko aukera izango dute. Gainera, lasterketa amaitu ondoren sari banaketa egingo dutela eta parte-hartzaileen artean opariak zozkatuko dituztela jakitera eman dute. Horrez gainera, korrikalariarentzat txokolate beroa, kafea eta fruta egongo da, Ezkurdin.

Jesus Echeverriaren Akasel lanaren estreinaldia Silboberriren kontzertuan

Abenduaren 7an egingo dute kontzertua, 19:30ean

KONTZERTUA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2005etik hona, Silboberri txistu taldeko kideek *Txistua XXI. mendean* zikloa antolatzen dute Durangoko Azokako egunetan. Aurten ere, Durangoko Azokara

bisitan datozen lagunek urteroko kontzertura joateko aukera izango dute.

Abenduaren 7an izango da ikuskizuna, 19:30ean, San Franziskoko elizan, eta Jesus Echeve-

rria musikari nafarraren Akasel lanaren estreinaldiaz gozatzeko aukera izango dute. Baita Hilario Extremianaren *Zehaztu-Uztartu* lanagaz, Urtzi Iraizozen *Danza del Solsticiogaz*, Felix Ibarrondoren *Berlinesagaz* eta Joseba Torreren *Kantuz Elkartuz* lanagaz ere.

Peio Irigoien, Xabier Olazabal, Aitor Urquiza, Aitor Amilibia, Josean Hontoria eta Elur Arrieta izango dira ekitaldian parte hartuko duten musikariak.

Orritz-Iskidi, Sugarri eta Kriskitin hilaren 7an Durango Folken

DANTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Folk jaialdia Euskal Herriko folklorea eta beste lurralde batzuetako erakusteko asmoagaz jaio zen Durangon, orain 21 urte.

Harrezkero, Kriskitin dantza taldearen eskutik hamaika dan-

tza talde eta musikari etorri dira Durangora, tokian tokiko folklorea gozatu eta ezagutarazteko asmoz. Aurten, Durango Folken XXI. edizioan, Irurtzungo Orritz-Iskidi taldeak, Durangoko Sugarri fanfareak eta Kriskitin dantza taldeak parte hartuko dute.

Hiru taldeek abenduaren 7an erakutsiko dituzte euren ikuskizunak Durangoko kaleetan zehar, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

OINETAKO
PATOLOGIAK
NEURRIRA
EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE
HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN
ASTEAN ZEHA
ENKARGUZ
Gutxienez 15
lagunekoa taldeentzako



Haurrak eta euren familiak euskal kulturara gerturatu gura dituzte Saguganbarak, eta hainbat diziplinako sormen lanak ematen dituzte ezagutzera haur eta gazteentzat.

Saguganbara: txikien aterpea euskal kulturaz gozatzeko

SAGUGANBARA • AITZIBER BASAURI

Ipuinak, jolasak, esperimentazio-rako tartea, musika.... Durango Azokako Saguganbarak hori guztia eta gehiago batuko du gaurtik eta domekara bitartean, aurreko urteetako bideari jarraituz. Haur literaturari eta irakurzaletasunari garrantzia emanez, euskal kulturaren transmisioan eragin gura du txikien eta handien plaza honek.

Haurrak eta euren familiak euskal kulturara gerturatu gura dituzte Saguganbarak, eta, urtean zehar, haur eta gazteen arloan hainbat diziplinako sormen lanak ematen dituzte ezagutzera. "Umeak eta familiak literaturara hurbildu gura

ditugu, gozamenetik, esperientzia positiboetatik. Horrela, gaur egun, eta etorkizunean ere bai, Durango Azokako bisitari izan daitezten", azaldu du Itsaso Gangoitia Saguganbarako arduradunak. "Oroitzapen on bat sortu gura dugu txikiengan, eta Durango Azoka eurentzat ere badela sentiaraztea. Aintzat hartzen ditugula ikustea gura dugu, eta erakutsi euri ere zabalik dagoen plaza dela Azoka", gaineratu du.

Autoekoizpenen igoera

Autoekoiztutako ipuinak nabarmenduko dira Saguganbaran datozen egunetan. Horien presentzia

handitu egin da, Gangoitiak azaldu duenez: "Geroago eta gehiago dira bide hori aukeratzen duten sortzaileak. Horren adibide da *Azalerako ipuinak*, poesia, errima, hitz jolas,

"Oroitzapen on bat sortu gura dugu txikiengan, eta Azoka eurentzat ere badela sentiaraztea"

kanta eta ipuin laburrez osaturiko grabazio organikoa. Ahozkotasunaren garrantzia eta honek gorputzagaz, mugimenduagaz, aza-

lagaz duen hartu-emana kontuan harturik sorturiko lana da, 0tik 5 urtera bitarteko haurrei eta euren familiei zuzendurikoa. Durangaldean sorturiko proiektua da, Saroa Bikandiren, Peru Magdalenaren eta Maria Uriarteren eskutik. *Kokojoko* izeneko bideojokoaren sortze-lana ere erakutsiko dute egunotan Saguganbaran, eta Maite Arresek umeentzako yoga saio praktikoa ere eskainiko du. *Yogipunak* aurkezteko baliatuko du saioa aktore, ipuin kontalari eta yoga irakasle gipuzkoarrak.

Ene Kantakoen saioa

Aurreko urteetan lez, Ene Kantakoen aretoa beteko dute, abenduaren 7an. Txikiengan artean arrakasta izan duten 10 bat abesti eskainiko dituzte zuzenean. Bestalde, abenduaren 6an, esperimentatzeko tartea hartzeko aukera izango dute gaztetxoek. Ana Galarragaz batera, hainbat esperimentu egingo dituzte Elhuyarrek aurkeztutako duen *'STEAM esperimentuak haurrentzat'* liburua bidelagun hartuta. Saguganbarako arduradunek komiki tailerrak ere antolatutako dituzte.

Ipuin kontaketa saioek areto txikia izango dute aterpe. Besteak beste, Antton Kazabonek, Pello Añorgak, Leire Bilbaok, Katixa Zugaztik, Juan Cruz Igerabidek, Eider

"Geroago eta gehiago dira autoekoizpenaren bidea aukeratzen duten sortzaileak"

Eibarrek eta Xabier Olasok parte hartuko dute egunotan Saguganbaran. *Herensugeen itzulera* liburua idatzi duen Debagoienako familia sortzailea ere batuko da.

Ikuskizuna

Euskal mitologia ardatz duen *Marrazjaun eta Sorgina Txirulina*. Euskal mitologia ikuskizuna erakutsiko dute, domekan. Animaziozko film laburra, Sorgina Txirulinaren (Erica Lique) ipuin kontaketa musikatua eta Marrazjaunek (Oskar Gorroño) egindako zuzeneko marrazki ikuskizuna batzen ditu.

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzobia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

AXA

AMALUR ASEGURUAK, S.L.
amalur.aseguruak@agencia.axa.es
www.amalur.agencia.axa.es

AXA DURANGO KURUTZIAGA

Kurutziaga, 26 DURANGO
94 681 60 22 / 94 658 47 03
688 60 12 30

ROTU-NET

ERROTULUAK

- Furgonetak
- Erakusleihoak
- Pabiloi industrialak
- Letra gorpuzdunak PVC, INOX, etab.
- Oihal eta olana inprimaketa

www.rotunet.net 94-681 26 81

SAGUGANBARA TXIKI ETA HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguena ARETO NAGUSIA 10:30 IKASLE GOIZA. 'Hitzik gabe gelditu ziren ipuinak'. Tailerra. Saio bi. Aurretik izena eman dutenentzat. 14:00 KLARISA ETA K TALDEA. 'Arimen parkearen misterioa'. Arrate Egaña idazlea eta Marimar Agirre ilustratzailea. 8tik 12 urtera arteko gaztetxoak (Erein argitaletxea). 17:00 XAPOKETAN KARTA-JOKOA. 'Ezagutu Euskal Herriko animaliak'. (Argia) 18:00 XAXARDI. Haurrentzako ipuinaren aurkezpena, proiektzio bitartez. 3tik 9 urtera arteko umeak eta familiak. Joana Ziganda eta Iker Uribe. 19:00 KOKOJOKO. Bideo-jokoa. Eider Eibarren zuzeneko marrazkiak eta aurkezpena.	11:00 ANIMALETRAK. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena. 6tik10 urtera arteko gaztetxoak. 12:00 ALT XORRAREN BILA! Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. (Elkar) 13:00 IZARREKIN LO. Liburu aurkezpena. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena. 5etik 8 urtera arteko umeentzat. 14:00 ALTZOKO HANDIA. Bildumaren aurkezpena. Koldo Izagirre eta Irimarra bikoa. 3tik 10 urtera bitarteko gaztetxoak. (Erein) 16:00 KATTA. Ipuin kontaketa. 3tik 6 urtera arteko umeak. (Elkar) 17:00 STEAM ESPERIMENTUAK HAURRENTZAT. Liburuaren aurkezpena. Ana Galarraga. 5etik 10 urtera arteko gaztetxoak. (Elhuyar) 18:00 GABI ETA BERNARDAREN KOMERIAK. Liburu aurkezpena. 6tik10 urtera arteko gaztetxoak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena. 19:00 ZURE BIHOTZEAN. Ipuinaren aurkezpena. Jose Mari Sarasola. ABENDUAK 6, barikua ARETO TXIKIA 11:30 FAMILIA JOLASEAN. Tailerra. 2tik 5 urtera arteko umeak eta familiak. 13:30 AZALERAKO IPUINAK. Tailerra. 0tik 5 urtera arteko umeak. 16:30 LIBURU BABY KLUBA. Tailerra. 0tik 3 urtera arteko umeak. (Mestiza Elkartea) ARETO NAGUSIA	11:00 KAKA DANTZARIA. Dantzaria izan nahi zuen kaka zati baten istorioa. Ipuin kontaketa. 3tik 7 urtera arteko umeak. Bego Goitia. 12:00 HAZI TXIKI. Liburu aurkezpena eta kontaketa. 3tik 7 urtera arteko umeak. Pello Añorga eta Jokin Mitxelena (Zubia-Santillana). 13:00 AZKEN LANHÜTARRA. 10etik 13 urtera arteko gaztetxoak. (Erein) 15:00 AMETSEN BASOA. Liburu aurkezpena eta ipuin kontaketa. Pello Añorga. 3tik 6 urtera arteko umeak. (Elkar) 16:00 ENE KANTAK. Kontzertua. 2tik 8 urtera arteko umeak. 17:00 BELARDO, BA AL ZATOZ? Komiki tailerra Iñaki Martiarena "Mattin" marrazkilariaren eskutik. 7tik 10 urtera arteko gaztetxoak. 18:00 LIBURU BOT. Ipuin kontaketa. 5etik 11 urtera arteko gaztetxoak. 19:00 TXIMELETAK HONDARTZAK. Liburu aurkezpena. Maixa Zugasti. 10etik13 urtera arteko gaztetxoak (Erein). ABENDUAK 7, zapatua ARETO TXIKIA 11:30 YOGIPUINAK. Ipuin kontaketa. Maite Arrese. 5 urtetik gora. 17:30 EUSKARAZKO JOLASAK. Tailerra. 3 urtetik gora (Elkar) ARETO NAGUSIA	11:00 ALDO MUSIKARI. Ipuin kontaketa. 2tik 5 urtera arteko umeak. 12:00 ETXE HONETAN. Liburu aurkezpena. Aintzane Usandizaga eta Asier Iturralde 'Gaston'. 4tik 7 urtera arteko umeak. (Pamiela) 13:00 HERENSUGEEN ITZULERA: SATARIPEKO GUDA V. ATALA. Liburuaren aurkezpena. 8tik12 urtera arteko gaztetxoak. 15:00 PETER PAN, KALAFATE BILDUMA. Irakurketa errazeko liburua. 9tik 14 urtera arteko gaztetxoak. 16:00 ANIMALIAK ETA FRUTAK (ILARGIAN KULUKANTARI). Xabier Olaso. 1etik 5 urtera arteko umeak. (Pamiela). 17:00 MARRAZJAUN ETA SORGINA TXIRULINA. Euskal mitologia. Ikuskizuna. 6tik 12 urtera arteko gaztetxoak. 18:00 LO POTOLO. Lotara joateko ipuinak eta poemak irakurtzea eta zuzenean marraztea. Eider Eibar, Leire Bilbao, Mitxel Murua, Juan Kruz Igerabide. 2 urtetik gorako haurrak (Alberdania) 19:00 ILEZURI ETA KORALAREN DISDIRA. Ipuin kontaketa. 5etik10 urtera arteko gaztetxoak. ABENDUAK 8, domeka ARETO TXIKIA 12:30 POESIAREN MISTERIOA. Tailerra. Garazi Basterretxea eta Celeste Agüero. 7tik 12 urtera arteko gaztetxoak. ARETO NAGUSIA
--	---	--	--

leike

aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



LAPUR ERROTA

GASTRO EXPERIENCE

Fray Juan de Zumarraga, 31 DURANGO

Tel.: 946 81 54 44

www.lapurerrota.com

PARKING PRIVATUA

ERRETEGIA - PUB - PIZZERIA

Pizzak, hanburesak eta fundiduak

Okela eta arraina txingarretan erreta

Askotariko Gin-tonicak.

Pub-a astean zehar 02:30ak arte zabalik eta asteburuetan 04:30ak arte.

* Etxera eramateko zerbitzua Bapo-Baporekin!



MONTÓ

DURANGO MARGOAK

DURANGO MARGOAK

Askatasun Etorbidea, 9 DURANGO

Tel.: 946 40 88 20

www.durangomargoak.com

PINTURAK GOI MAILAKO DEKORAZIOA SISTEMA TINTOMETRIKOA PAPER MARGOTUAK

MONTÓ HTM Azulejuetarako

MONTÓ SMART Pintura Fotokatalitiko

MONTÓ CREA Klarion efektua





Kukai Dantza Taldeak (ezkerrean) 'Erritu' obra barikuan eskainiko du. Atxotegi eta Gabilondo (eskuinean), ostera, zapatu osoan arituko dira kultur gunean. **DURANGOKO AZOKA**

Szenatokia guneak Dantza eta Antzerki Jaialdia antolatuko du estreinakoz

Guneak agenda zabala izango du azokan. Kukai Dantza Taldea eta GANBILA arituko dira barikuan, San Agustin Kultur Gunean

SZENATOKIA • IGOR GALARZA

Szenatokia guneak berritasunak eta erakusleho berriak dakartza Durango Azokako 54. edizioan. Esperientziadun artistek zein artista berriek zapalduko dute San Agustin Kultur Gunea. Berritasunetarikoa bat antzezlekuen kokapena izango da. Izan ere, aurretik, lehenengoz, Dantza eta Antzerki Laburren Jaialdia antolatuko dute, hamar konpainia eta 30 emanaldi-gaz osatuz.

Azokak abenduaren 5ean zabalduko ditu ateak, eta irekieragaz batera, ikasleen eguna etorriko da. Szenatokiak tailer bereziak sortu

ditu ikasleentzat, eta Karrika Antzerki taldeagaz batera inprobisazioak landuko dituzte. "Helburua gizartean izaten diren estereotipo eta etiketen inguruan berba egitea

Eguenean, ikasleek sormenari eta antzerkiari buruz berba egiteko aukera izango dute

da", Karrikak saioaren aurkezpen azalean adierazten duenaren arabera. Tailer horien proiektuaren

ondoren, ikasleek antzerkiaren eta sorkuntza prozesuaren inguruan berba egiteko aukera izango dute.

Barikuan, arratsaldean ekingo diote eguneko egitarau labur bezain interesgarriari. Alde bate-tik, GANBILA antzerki bildumak aurkezpen teatralizatu bat izango du. Eneritz Artetxe gidari, eta Saioa Iriondoren eta Oihan Zubizarretaren laguntzagaz, antzerki bilduman sartutako lanean Miren Tirapu, Patxo Telleria eta Ximun Fuchs sortzaileak solasean arituko dira. Bestalde, iluntzean, Szenatokiak dakarren osagairik indartsuenetarikoa egongo da ikusgai

San Agustineko oholtza gainean. Kukai dantza taldeak *Erritu* lana eskainiko du. Dantza taldearen us-tez, lanak "bizi-bidaia" bat adieraz-ten du, eta jaiotzetik heriotzaraino

Zapatuan, Uribarri Atxotegi eta Ane Gabilondo durangarren obra egongo da ikusgai

bizi diren etapa desberdinak antzeztuko dituzte. Sharon Fridman da zuzendaria.

Asteburuan, obrak nonahi

Zapatuan eta domekan dator Szenatokiak aurretik eskainiko duen berrikuntza. San Agustin Kultur-gunean. Guneak zenbait tokitan dantza eta antzerkia ikusteko aukera izango da, aldi berean. Uribarri Atxotegi eta Ane Gabilondo durangarren eskainiko duten *Nundik nora* interpretazio eta dantza lana da euren arteko bat. Obraren aurkezpenaren, "bizitza honi bere zentzua bilatzeko egiten diren borroka txiki-handiak dira", azaldu dute. Zapatuan, egun osoan, hainbat bider eskainiko dute hoge minutuko interpretazioa.

SZENATOKIA ARTE ESZENIKOEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguna

10:00 IKASLE GOIZA. "Oraindik izen gabe". Hiru saio ikasleentzat, Karrika antzerki taldearen eskutik.

ABENDUAK 6, barikua

17:00 Ganbila antzerki bildumaren aurkezpen teatralizatu. EHAZEK antolatuta.

19:00 'Erritu' ikuskizuna. Kukai dantza taldea. Sarrera 10€. Saltokiak: Durango Arte eta Historia museoan, San Agustin kultur gunean emanaldia baino ordubete lehenago, edo www.kutxanbank.es

ABENDUAK 7/8, zapatua eta domeka

Antzerki eta dantza pieza laburren jaialdia:

- 10 talde: zazpi zapatuan eta hiru domekan.
- 30 emanaldi: 22 zapatuan eta zortzi domekan.
- 15-20 minutuko iraupena bakoitzak.

• Sarrera doakoa da eta Szenatokia gunean bertan banatuko dira txartelak.

• Saiorik gehienak San Agustin kultur guneko txoko kutun eta ezohiko espazioetan izango dira.



MANTENTZE-LANAK KOMUNITATEETAN
SATE (Kanpoko isolamendu termikoaren sistema)
ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA
FATXADA AIREZTATUAK
TEILATUAK

646 35 31 99 info@ametsa.es **DURANGO**

Durangaldea bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Zamorako kartzelan preso egondako apaizen testigantzekin egindako dokumentala Irudienean erakutsiko dute, zapatuan

Kartzelatik igarotako hainbat abade batuko dituzte zapatuko ekitaldian; tartean, Xabier Amuriza bertsolari eta idazlea egongo da

DOKUMENTALA • JOSEBA DERTEANO

Protagonisten lekukotzen bitartez, frankismo garaian Zamorako abade kartzelan preso egon zirenen istorioa *Apaiz kartzela* izeneko dokumentalean jaso dute Oier Aranzabal eta Ritxi Lizartza zuzendariek. Dokumental horren irudiak azokan erakutsiko dituzte, abenduaren 7an. Irudienean

izandako eraikin hura abandonatuta dago, apurtuta eta zahartuta, baina hara joan ginenok toki guztiak ezagutu genituen, detailerik detaile. Niretzat itzela izan zen. Baten batek esango du: "Tristeia behar du hara bueltatzekak!", baina atea zabalik utziz gero ez dago tristurarik! Ilusio itzela egin zidan eta niretzat une emozionantea izan zen", gogoratu du Amurizak.

Vatikanoaren eta gobernu frankistaren arteko akordio baten bitartez sortu zuten abadeen kartzela

izango da, 12:30ean. Preso egon ziren hainbat abade batuko dira ekitaldian.

Han preso egondakoak kartzelara bertara eraman zituzten dokumentalerako eszenak grabatzeko. Xabier Amuriza bertsolari eta idazlea (Etxano, Zornotza, 1941) da eurretatik bat. Hain zuzen ere, dokumentala iragartzeko erabili duten kartelean Amuriza zelda batean ageri da, aulki batean jesarrita eta leihotik kanpora begira. "Zelda haretan bertan lau hilabete eman nituen", gogoratu du, eta dokumentalaren harira egindako bisitak gomutak ekarri zizkiola onartu du. "Gaur egun, kartzela

Kartzelako egonaldiak

Zamorako kartzela handiko hegalt preso probintzialei bideratuta zegoen 60ko hamarkadan. 1968an kartzela hartan zeuden presoak handik atera, eta abadeentzako kartzela lez erabiltzea erabaki zuten. Kartzela konkordatorioa zen, hau da, Vatikanoaren eta frankismoko gobernuaren arteko akordioaren barruan sortutakoa.

Xabier Amuriza aldi bitan egon zen kartzela hartan. Lehenengoa 1968an izan zen, kartzela zabaldu zuten urtean. Guardia Zibilak Xabi Etxebarrieta ETako kidea hil zutenean, publikoki ezin zenez ezer egin hori salatzeke, mezak antolatzea zen modu bakarra traba hori ekiditeko, elizak ezin zuelako ukatu arima baten aldeko meza. Etxebarrietaren aldeko meza bat Durangon izan zen. Ez zuen Amurizak eman, baina batu egin zen



Xabier Amuriza preso egon zen zeldako leihotik begira.

Amurizak dio kartzelara itzultzeak "ilusio itzela" egin ziola eta "une emozionantea" izan zela

ekitaldira. "Jendetza izugarria zegoen eta Andra Mari ingurura ere ezin izan nintzen heldu", gogoratu du. Baina baten batek han zegoela ikusi, salatu, eta 30.000 pezetako isuna ipini zioten. Ordaindu ezik, kartzelaldia zen zigorra, egun bat 1.000 pezetako. Hilabete eman

zuen Zamorako kartzelan. Han bertan preso egon zen bigarren aldia luzeagoa izan zen. 1969an, bost abadek itxialdi eta gose greba sonatua egin zuten Bilboko Gotzaindegian, eta latz ordaindu zuten. Amurizak sei urte eta erdi eman zituen kartzelan.

Zoladurak
Oholtzak
Leihoak
Ateak
Armairua
Eguzki-babesa
Gortinak
Alfonbrak



APAINKETAK ROYUELA
BERNIZADURAK-LEUNKETAK

Jokatu zure espazioekin modu xume eta pertsonalizatuan

Kalebarria, 40 Durango
Tel.: 946 810 582 · info@royuela.biz



KÖMMERLING®
Sistemas de ventanas




DESGUACES PILASTRA

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

☎ **Administrazioa, bajak eta faxa:** 946 218 079
 ☎ **Osagarrien salmenta:** 946 201 787
 e-mail: desguacespilastra@gmail.com
 📍 Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

1955an sortua

GALLASTEGI
harategiak



ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatía

RPS.: 57/16

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
 pzubizarreta@gmail.com
 Tel.: 946 550 049 / 695 784 963



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

En Tol Sarmientok, Zetakek, Arkada Socialek eta Maider Zabalegik euren azken lanak aurkeztuko dituzte Plateruena kulturgunean

Kontzertuak 23:00etan hasiko dira; Maider Zabalegiren kasuan (abenduak 8), kontzertua 20:00etan hasiko da eta doakoa izango da

PLATERUENA • A.M.

Beste urte batez, Plateruena Durango Azokako kontzertu handien plaza izango da. Abenduaren 5etik 8ra bitartean, publiko guztietarako eskaintza egongo da, gazte, heldu eta nagusientzat.

Arabako ska doinuak egongo dira lehenengo egunean. En Tol Sarmiento taldeak *Aukera Berriak* disko berria aurkeztuko du, zuzenean. Abenduaren 6an, barikua, Zetak proiektuaren kontzertua ikusi ahal da Plateruenean. Pello Reparazen proiektu berria da Zetak; musika elektronikoa ardatz hartuta, bestelako doinuekin nahasten du Vendettako kide ohiak. Bestalde, abenduaren 7an, klasiko batzuek aurkeztuko dute disko berria Pla-

teruenean. Arkada Social arrasatearrek, hain zuen ere. *No Retorno* deitzen da euren azken lana.

Tradizio bihurtu den lez, Plateruena kontzertu lasai batez itxiko du Durango Azokako aurtengo edizioa ere. Maider Zabalegik kontzertua eskainiko du Landakoko ateak itxi eta gero, 20:00etan.

Hautsi telebista

Kontzertuen gune ez ezik, Azokan bizitako komentatzeko, giroaz gozatzen jarraitzeko eta mokadutxo bat ahartzeko leku ezin hobea izango da Plateruena. Horrez gainera, bigarren urtez, *Hautsi Telebista* saioa grabatuko da bertan, Azoka Telebistagaz elkarlanean.



Zetako.

PLATERUENA KONTZERTU HANDIEN PLAZA DA!

ABENDUAK 5, eguna

23:00: EN TOL SARMIENTO. 'Aukera berriak' diskoa aurkeztuko dute.

ABENDUAK 6, barikua

12:00 HAUTSI BOLUMENA. Bideoklipen zuzeneko saioa Azoka TB lantaldeak ekoiztuta.

23:00 ZETAK. 'Zetako' diskoa aurkeztuko dute.

ABENDUAK 7, zapatua

12:00 HAUTSI BOLUMENA. Bideoklipen zuzeneko saioa Azoka TB lantaldeak ekoiztuta.

23:00 ARKADA SOCIAL. 'No retorno' diskoa aurkeztuko dute.

ABENDUAK 8, domeka

12:00 HAUTSI BOLUMENA. Bideoklipen zuzeneko saioa Azoka TB lantaldeak ekoiztuta.

20:00 MAIDER ZABALEGI. 'Bidean' diskoa aurkeztuko du. SARRERA DOAN.

ARRETXE GESTION
ERAKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZA

TXALETAK - TXOKOLAT - FATXADAK
BASERRIAK - ETXEBIZITZAK TEILATUAK
NABEAK - ERATSKETAK - MARMOLGINTZA
HARGINTZA - INPERMEABILIZAZIOA

GRUPOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORNOTZA / BIZKAIA

UNAI GARAY

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

Azkonizaga

Edari banaketa
GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
www.nacex.es

San Roke, 10-12 DURANGO
Tel.: 946 200 162 / Mob.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es

PLATERUENA • ARITZ MALDONADO

2017an etapa bat itxi eta gero, Ekorrako (Araba) En Tol Sarmiento boskoteak bide berri bati ekin dio. Gaur 'Aukera Berriak' diskoa aurkeztuko dute Plateruenean. Sarrera guztiak salduta daude.

Gaurko (abenduak 5) kontzerturako prest?

Bospasei urte daramatzagu Durangoko Azokara joaten, eta Aho-tsenean ere jo dugu, hainbat formatutan, baina Plateruenean joko dugun lehenengo aldia da. Lau urte daramatzagu aretoetan jo barik, eta birako lehenengo kontzertua sarre-ra guztiak salduta eskaintzea oparia da guretzat. Are gehiago, batik bat udan jotzen duen talde bat izanda.

'Aukera Berriak' fase berri baten lehenengo pausoa da. Zertan datza etapa berri hau?

Aurreko lanean aurreratu genuen ziklo baten amaiera zela. Hamabi urteren ondoren, gorputzak aldatzeko eskatzen zigun. Sortzeko ere komeni aldatzea, estankatuta ez gelditzeko. Estiloa bakarrik ez, funtzionamendua ere aldatu gura genuen. Bagenekien zikloa itxita zegoela eta aldatzea gura genuela, baina ez genekien zelan. Musikalki, ekoizle batek lan eginda bidea topatu dugu.

Urte bian egon zarete material berri-rako lanean.

Lan karga handia izan da, baina me-rezi izan duelakoan gaude. Estilo eta soinu berri batzuk jorratzea lortu dugu, elektronika ere ukitu dugu. Eta hori guztia aurreko gauza onei, freskotasunari eta alaitasunari eutsita lortu dugu. Metalen presentzia txikiagoa da lan honetan; abesti bat

“Birako lehenengo kontzertua sarrerek agortuta eskaintzea oparia da guretzat”

Urte biren ondoren, berriro ere taula gainera igoko da ETS; Plateruenean eskainiko du kontzertua, gaur, 23:00etan



“

Aldatzea gura genuen, baina ez genekien zelan; ekoizle batek lan eginda bidea topatu dugu”

—

metalik barik doa lehenengoz, eta beste instrumentu batzuk ditugu. Hortik dator izenburua ere, hau guztia berri delako guretzat.

Zelan Pello Reparazegaz lanean?

Beste modu batera lan egin dugu: lokalera joan aurretik, abestien demoak eginak genituen bion artean, gero lokalean lantzeko.

Normalean, neuk idatzi izan ditut musika eta hitzak, baina lokalean osatzen genituen abestiak. Horrela ere melodiak egiteko aukera gehiago eduki dut, adibidez.

Zelakoa izan da jarraitzaileen harrrera?

Diskoa sarean eskegi genuen, jendeak entzun eta kontzertura go-

gotsu joateko, eta *feedback* oso ona izan da. Prest geunden kritika negatiboak jasotzeko ere, baina, orokorrean, oso onak izan dira.

Eta aurrera begira, zer?

2020ko martxo aldera bost kontzertu emango ditugu hiriburuetako aretoetan. Gero, Madrilera eta Bartzelonara joango gara.

IBAIZABAL

IBAIZABAL AUZUNEA, 2 DURANGO • TEL.: 946 550 185

CERAMICAS
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
www.macober.com

Folder

- Enpresa zerbitzua
- Eskolako materiala
- Kontsumibleak
- Informatika osagarriak
- DHL zerbitzua
- Opariak

Zumalakarregi 10
48200 Durango
94 621 73 42
durango@folder.es
www.folder.es

 **AMAYA**
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango


Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

hitz #salduenak

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1^a



ZELDAK -
GORPUTZ HONETATIK
Elena Olave (Balea Zuria)

2^a



BASA
Miren Amuriza
(Elkar)

3^a



ETXEA ETA HILOBIAK
Bernardo Atxaga
(Pamiela)

“Txikitan umeek ez dute narrazio handirik behar; gorputzetik sartzen den literatura da behar dutena”

'Azalerako ipuinak' egitasmoaren bitartez, ahozketasuna eta haur literatura adin txikikoei eta haien familiei hurbildu gura diete Hegoak proiektuko kideek eta Etxegirolekoek. Barikuan, abenduaren 6an, proiektua azaltzeko tailerra eskainiko dute Saguanbaran. Bertan izango dira Uriarte eta Bikandi

LITERATURA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Saroa Bikandi durangarra herririk herri eta liburutegirik liburutegi dabil azken urteotan. 'Azalerako ipuinak' egitasmoaren bitartez, ahozketasuna eta haur literatura adin txikikoei eta haien familiei hurbildu gura izan diete. Orain, beste pauso bat eman eta, indarrak batuta, Hegoak lantaldeak, Saroa Bikandi, Peru Magdalenak eta Elorrioko Etxegiroleko ekoiztetxeak 'Azaleko Ipuinak' CDa kaleratuko dute. Saguanbaran aurkeztuko dute lana, barikuan, 13:30ean.

Durango Azokan 'Azalerako ipuinak' lana aurkeztuko duzue. Zer da?

Saroa: Ume txikiekin eta euren gurasoekin liburutegietan lantzen den ekimen batetik sortutako proiektua da 'Azalerako ipuinak'. Ahozketasuna eta lengoia gorputzetik ikasten direla ulertzen dugu, eta, horregatik, tailer horretan, gorputzagaz uztartzen diren eta aho tradizioetik datozen berba joko, errima, poema eta abestiak lantzen dira, besteak beste. 'Azalerako ipuinak' tailer horretatik irtendako proiektua da. Umeek gorputzetik ikasten dute hizkuntza, erritmo horretan oinarritzen diren poemak eta olerkiak dira.

Maria: Saroak zazpi urte daramatza liburutegietan tailerrak ematen, hizkuntzagaz jolasten. Umeekin batera disfrutatzen eta hizkuntzagaz jolasten erakusten dizu.

Guraso askok tailer horretako materiala pasatzeko eskatu izan diote sarritan. Berak idatziz bidaltzen ditu, baina audio bat behar duzu erritmoak ez ahazteko.

Bazegoen proiektu bat, baina zelan bururatu zitzaizuen indarrak batu eta lan hau kaleratzeko?

Saroa: Hau magikoa izan da. Maria eta Tomas horretara deitzen dira, eta Mariari proiektua kontatu nionean asko gustatu zitzaion. "Etorri eta kontatu" esaten zidan behin baino gehiagotan. Gainera, entzuteko literatura egiten dute eurek, eta, egia esan, oso ondo uztartu dira.

Maria: Elorrioko liburutegian ezagutu genuen elkar, iloba bigaz bere tailerretara joaten hasi nintzenean. Saroak beti esaten zuen lana beste euskarri batera pasatu gura zuela, iraunkortasun handiagoa emateko asmoz. Nik esaten nion gure etorri eta kontatzeko. Eta guk Saroak duen esentzia hori gauzatu egin dugu.

Saroa: Niretzat izugarritzko oparia izan da, hain gertu eta hain

ondo ulertu nauen jendea aurkitzea. Bestela, norengana zoaz horrelako gauza bat egiten?

Proiektu hau umeak literaturara hurbiltzeko pauso bat da?

Saroa: Dudarik barik, hau literatura hutsa da. Txikitan umeek ez dute narrazio handirik behar; gorputzetik sartzen den literatura da behar dutena, erritmoaren bitartez sartzen dena.

Autoekoiztutako lehenengo lana duzue biok. Zelakoa izan da esperientzia?

Saroa: Esperientzia berria izan da. Ez nekien ez zer zen, ez nora ailegatu ahal ginen, ezta zer suposatzen zuen ere. Pentsatzen duzuna egiten duzu, baina, gero, pentsatutako hori baino lan gehiago eskatzen du. Eskerrak Maria eta Tomas hori egon diren, guri laguntzen eta erakusten.

Maria: Hau bultzakada bat izan da. Ekainean batu ginen, etxeko sukaldean, eta ordutik gelditu barik ibili gara, Azokarako lanean.

Saroa: Eta eskerrak Durango existitzen dela, bestela ez duzu egiten. Azoka hori egotera, helburu bat ipintzen diozu zeure buruari.

Zer suposatzen du zuentzat Durango Azokan zuen lana egoteak?

Saroa: Harrotasun puntu bat. Gure maitasun guztiagaz egin dako lan bat jendeari zabaltu ahal izatea horrelako leku polit batean. Guk sinisten dugu umeek ahozketasuna behar dutela, tartetxo hori behar dutela literaturagaz, harreman linguistiko hori sortzeko. Eta hori jendeari zabaltzeko plaza polita da Durango.

Maria: Umeei zein nagusiei hizkuntzagaz jolasteko aukerak ematen dizkiegu. Durango gozamena da, oso toki kalidua. Azokarako argitaratzeak esan gura du, zure lan hori gure leku batean kaleratuko dela.



Maria Uriarte Artamendi

• (Elorrio, 1966)

Saroa Bikandi Lopez

• (Durango, 1978)





Ikasiz Goza Ezazu !

www.aquariumss.com

AQUARIUM DONOSTIA SAN SEBASTIAN